

# t tipi t tapa

2002ko irailaren 19a • XXII. urtea


334



**Julian Iantzi  
lesakarra Basetxean**

03

ETBko «Basetxea» programak ikusleak dibertitzea bertze helbururik ez duela dio Julian Iantzi aurkezle lesakarrak. Aurten Et-xalarren grabatuko dituzte saioak.



**Bidasoaren Eguna  
irailaren 22an**

09

Bigarren urtez antolatu du Aizkolegi taldeak Bidasoa erreka-aren eguna. 150 lagun aritu ziren iaz herriz herri erreka garbitzen eta 250 zabor poltsa atera zituzten.



04 Denboraldi berria  
Ttipi-ttapa Telebistan



# TINTORERIA JAIONE

Elizagibela 7 · 31740 DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 521

**Urritik aitzinera  
9,30etatik 4etara irekia**

**OFERTAK**

**URRIAN**

**3 galtza 2ren prezioan  
3 x 2**

**URRIA eta AZAROAN**

**Alfonbrak 5,90 € /m<sup>2</sup>**

## MUEBLES A METS

**Iarunbat  
arratsaldetan  
irekia**

**4000 m<sup>2</sup> erakusketa**



***Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak***



BISITATU GURE  
WEB ORRIA  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

**Sarrera BERAtik da** *Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*  
31789 LESAKA Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443

## DATUAK...

- Iruñeko Canal 4n eman zituen lehenbiziko pausuak telebistaren munduan lesakar honek. Ordutik, ETBn Sorginen Laratzean kolaboratzaile lanetan aritu da eta “Begia Gose” saioa aurkeztu du.
- Orain “Basetxea” programaren bigarren edizioa grabatzen ari da Etxalarren.
- «Telebistaren munduan kasualitatez hasi nintzen eta orokorrean zorte ikaragarria izan dut beti. Neurri handi batean horregatik nago orain nagoen tokian» dio Julianek.



Julian Iantzi ETBko “Basetxea” programaren aurkezlea

JOSEBA OLAGARAI

## «Gure helburua jendeak “Basetxea” ikusiz ongi pasatzea da, dibertitzea»

Joseba OLAGARAI

Orain ETBn Begia Gosen ikusten zaitugu, Sorginen Laratzean ere egon zinen eta laster Basetxean... zertan gustorago?

Ez nuke erraten jakinen. Nahiago dut euskaraz lanean ari baina Iruñeko Canal 4n egin nuen lana ere hagitz gustura egin nuen. ETBn aurkeztu ditudan saioak hagitz desberdinak izan dira eta denetan ibili naiz gustura. Erregistro desberdinak ibili behar izan ditut, ez baita berdina “Begia Gose”n gai serio bat jorratzea edo Basetxea bezalako lehiaketa bat aurkeztea. Denek eman didate aukera mundu honetan aitzinera segitzeko eta esperientzia berri bat izan da horietako bakoitza. Ni denekin gelditzen naiz.

**Nola ikusten da telebistaren mundua barrenetik? Nola daramazu pertsonaia ezaguna izatea?**

Nik kanpotik ez dut aunitz ikusten baina iruditzen zait telebistaren mundua magnifikatu egin dela. Telebistan egiten den lana ez da bertze edozeinena baino hobea, bertze lan mota bat da baina ez du merito handiagorik.

**«Etxalarren “Basetxea” grabatzeko beharrezkoak genituen baldintza guziak eskura genituen: hagitz fotografikoa, mendi ederrak, etxe politak...!»**

Neregana jendea etortzen da egiten dudan lanarengatik zoriontzera eta aunitzetan harritu ere egiten naiz. Baina hori ona da, nere programak entretenitzen duenaren seinale baita. Eta funtsean hori da gure helburua, jendeak telebista ikusten duenean momentu atsegin bat pasatzea, gure programarekin dibertitzea.

**Basetxea gure eskualdean grabatuko da, Etxalarren hain zuzen. Nolan?**

ETBk garbi zuen hurrengo Basetxea Nafarroan grabatuko zela. Taldekoek aipatu zuten Irati edo Belagua aldean grabatu zitekeela baina nik proposatu nien ni bizi nintzen ingurua egokia izaten ahal zela. Taldekoak etorri eta buelta bat eman zutenean liluratuta gelditu ziren gure eskualdearekin. Hagitz fotografikoa, mendi ederrak, etxe politak... Basetxea

grabatzeko beharrezkoak ziren baldintza guziak eskura genituen. Orduan baserria behar genuen. Baztanen eta Malerrekan begira egon ginen eta azkenean Bortzirietan, Etxalarren, aurkitu genuen. Lekua ikusgarria da, ikaragarri polita eta nerezat hagitz ongi, etxetik hurbil nagoelako. Gainera seguraski hemen inguruan ere eginen ditugu probak: Etxalarko usategietan, infernuko errota, Urrozko urtegian...

**Aitzintzen ahal diguzu nola izanen den Basetxearen 2. edizio hau?**

Dagoeneko lehiakideak aukeratzeko casting-a egin dago. Grabaketa irailaren 20an hasiko dugu eta 35 egunez arituko gara jarraian. Basetxean 8 lehiakide sartuko dira, hauek proba batzuk pasatu beharko dituzte eta astero bat aterako da baserriatik, bere ordeztu bertzetako sartzeko. Bukaerarte irauten duten 8 lehiakideetatik aterako dira hiru finalistak. Abenduan, zuzeneko programa bat eginen da eta publikoak erabakiko du zein izanen den irabazlea. Dударik gabe, inork galdu ezin duen programa!



# TTIPI-TTAPA TELEBISTAK programa gehiago eta ordutegi zabalagoa eskainiko ditu aurrerantzean

Programazioa berritu eta osatzen ahalegin handia egiten ari da ttipi-ttapa. Zuek ere parte har dezakezue, interesgarri diren informazio eta deialdien berri eman ez, zuek hartutako irudiak eskainiz... Denon artean denontzako telebista egin nahi baitugu

**Aldaketa dexente ekarriko du TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN denboraldi berriak. Alde batetik, orain arteko programazioa telebista eta kolaboratzaile berriekin osatuko da, eta bertzetik, emisioen ordutegia ere zabaldu egingen da eguerdikoko informatiboarekin.**

Urtero bezala, abuztu hondar eta irailko lehen astean atseden egun batzuk hartu eta tresneriaren errebisio teknikoak egiteko aprobetxatu ondoren, berriz ere lanean hasia da TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Horrela, bada, irailaren 9an abiatu zen denboraldi berria, oraingo honetan nobedadez beterik datorkiguna.

Aldaketarik ikusgarrienak programazioan eta ordutegian nabaritutakoak dira ikusleak, bata eta bertzea

zabalagoak izanen baitira aurrerantzean.

## INFORMATIBOAK EGUERDITAN ERE

Bi edizio izanen ditu hemendik aitzin Berriak izeneko informatiboak. Lehena eguerdikoko 13:00etan eta bigarrena arratsaldeko 20:00etan. Gisa honetara, eskaintzaren maiztasunean ez ezik puntualtasunean ere irabazi nahi da.

## AURPEGI ETA TELESAlO BERRIAK

laz garai honetan emititzen ziren saio guztiak segida izanen dute aurten ere: *Jokoa Solas*, *Zinea*, *Herriz herri...*

Eta horiekin batera, uda honetan abiatu ziren zenbait saio izan duten harrera ona baloratu ondotik, denboraldi berriko eguneguneko programazioan txertatzea erabaki da. Halaxe gertatuko da, adibidez, Iñaki Pikabea sukaldariak prestatzen duen *El-tze beroarekin*, Ainhoa Arburua eta Ainara Mindegiaren artean gauzatzen duten *Duda-muda* programarekin, Miren Karmele Tolosak aurkezten duen *Baratze xokotik* saioarekin eta Castillo Suarezren *Gomendioekin*.

## KIROL IKUSKIZUNIK INTERESGARRIENAK OSORIK ESKAINIKO DIRA

Zientoka gazte mugitzen da futbola, pilota, eskubaloia edota herri kirolaren inguruan. Horregatik, horietako zenbait osorik eskainiko dira aurrerantzean, jokaldiei dagozkien komentario eta balorazioekin hornituak. Jokabide berdina segituko da hainbat kultur ikuskizunekin; musika talde eta abesbatzak, antzerkia, dantza...


## PUNTUALKI, GERTAERA BEREZIEK JARRAIPENA

Urte sasioaren arabera, izaten dira gure herrietan bertze hainbertze gertaera puntualki bildu eta telebista honen bitartez eskaintzen direnak. Inauteriak, herrietako bestak eta feriak, hauteskundeak... Orain arte bezala, aurrerantzean ere horien denen lekukotasuna izanen duzue programazioaren barrenean.

## ALDAKETAK EMISIO ORDUTEGIAN

Eta aldaketekin bukatzeko, emisio ordutegiari ajuste batzuk eginen zaizkio denboraldi berri honetan. Arratsko emisioak gaueko 9etan hasi beharrean 8etan hasiko dira, eta errepikapenak hasiera batean orain arteko erritmoari eutsiko badiote ere, luze gabe ugaritu eginen dira.

## PROGRAMAZIOAREN BIZKAR HEZURRA



### BERRIAK

*Eguerdiko 13:00etan eta arratsko 20:00etan*  
Informatiboan maiztasun eta segimenduan ahalegin handiagoa eginen da hemendik aitzin. Bi edizio eskaintzeaz gainera, presentazio formatoa ere aldatu eginen da.



### JOKOA SOLAS

*Aitor AROTZENA*  
*Astelehen eta ortziraletan*



Beti bezala, gure kirolarien jarduera hurbiletik segituko du Jokoa Solas kirol saioak. Nobedade gisa, aurrerantzean ikuskizunik interesgarrienak osorik emanen dira.



### ELTZE BEROA

*Iñaki PIKABEA*  
*Asteartetan*




Saio aski interesgarria kategoriako sukaldariaren eskutik. Sasoiari dagokion jakiekin prestatutako platerak, bat baino gehiago animatuko duena etxean saiatzera.



### DUDA-MUDA

*Ainhoa ARBURUA - Ainara MINDEGIA*  
*Asteazkenetan*



Gaur egungo bizimoduak sortzen dizkigun arazo eta zalantzei erantzuten saiatuko dira Ainhoa eta Ainara. Zuen galderak ere aski gustora erantzunen dituzte.



### BARATZE XOKOTIK

*Miren Karmele TOLOSA*  
*Ortzegunetan*



Lurrarekin dugun lotura biziberritzen ahaleginduko gara programa honen bitartez, aholkuak, proposamenak, elkarrizketak, erreportajeak...



### GOMENDIOAK

*Castillo SUAREZ*  
*Ortziraletan*



Asteburuko denbora libreari probetxua ateratzeko hainbat gomendio emanen digu Castik, haur eta gazteendako joko eta jostailuak ahaztu gabe.



### HERRIZ HERRI

*Joseba OLAGARAI*  
*Asteko egun desberdinetan*



Han eta hemen ibiliko da gure lankidea pertsonairik bitxienak, ohitura berrienak eta gertaerarik kuriosoenak frexkura eta umore puntuarekin emateko.

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88  
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemmanuel Irgoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • KOLABORAZIOAK •

### Europako Nekazaritza Politika



#### Kalitateko produktuak eginen direla erraten duten bitartean prezioak jausteko tresnak jartzen dituzte eta hori bateraezina da

Mikel AZKARATE EHNEko ordezkaria Baztanen

Nekazaritza politikaren erreforma arras drastikoa egin nahi dute European, ez da errebisio txiki bat bakarra. Ez dago zuzendua baserriarrei, baizik eta produktore industrialei. Baserriarrek produzitzen dituzten produktuak hemendik urte batzuetara merketzeko sistemak jarri dituzte. Gure ustez, kalitateko produktu bat egiteak bere kostea eta bere prezioa dauka. Erreforma jantzi egin dute berdea, ekologista eta ingurugiroa zaintzeko izanen dela, kalitateko produktuak eginez eta bitarte horretan erremintak jartzen dituzte prezioak jausteko... hori inkompatiblea da. Edo bata edo bertzea. Subentzio sistema aldatu egiten da, beti aunitz kobratzen zuten aberatsek berdin kobratzen segituko dute. Baina baserriatik bizi denari, ingurugiroa zaintzen ari denari, herrian bizimodu bat ateratzen ari denari ez diote inolako balorerik ematen. Dirulaguntzak ez dituzte emanen aberearen arabera, baizik eta lur kopuruaren arabera. Berdin du produzitzen den edo ez. Orduan, mendialdeko baserriar askok, behi edo ardiak saltzeko tentazioa izanen dute, eta larre guziak sasiak hartuko lituzke, suteak areagotuz, bideak eta xendak galduaz eta garai bateko mendiak itxuraldatuz... Baserriarrek zera esango du: "hemen gatazkak zertan ari gara, gure produktuek ez dute deustako balio eta". EHNEtik beti eskatzen genuen modulazioa, aunitz kobratzen zuenari gehiago kendu behar zitzaiola, guti kobratzen zuenari gehiago emateko. Politika berriarekin frankizia bat jarri dute, 5.000 euro baino gutiago kobratzen duenari ez diote deus kenduko, baina berdin da baserriatik bizi dena izan edo etxean hamar behi eduki eta fabrikari lanean aritzea. Goitik jarri duten beste muga 50 milioi pezeta, 300.000 euro baino gehiago ezin izanen dela kobratu. Nafarroan ez dago bakarrik ere, iruditzen zaigu altuegi dagoela listaia. EHNEk lehenbiziko baserriar guziak informatu nahi ditu, gero indarrak bildu, badakigu baserriarrek bakarra ez garela aski izango politikoez ezarri nahi dituzten neurriak gibelera botatzeko. Jendeari erakutsi egin behar zaio erreforma hau ez dela nekazariarentzako bakarrik txarra, baizik eta kontsumitzailearentzat eta gizarte osoarentzat ere kaltegarria dela. Azkenean, baserriar guziok elkartu eta kalera aterako gara udazken honetan, ez bakarrik Nafarroan, politika honek Europako nekazari eta gizarte guzietan egiten dielako.



#### Nekazaritza Politika zehaztu gabe dago oraindik, beraz, lizentzia, azpiegiturendako dirulaguntza eta esne produkzioaz ari gara solasean

Ainhitze MURATORI UAGNko teknikaria

Europako Nekazaritza politikaz ez dugu deus komentatu egiten ari garen bileratan, oraindik ere aztertzen ari garela. Agenda 2000n prezio ezberdinak agertu ziren, gorabehera handiekin, oraindik zehaztu gabe dago. Beraz, orain balorazioa egiteak ez du funtsa handiegirik, espekulazio hutsea delako. Batez ere lizentzien arazoa, azpiegiturendako antolatu diren dirulaguntzak eta esne sektoreko Inlacz zer den eta nola funtzionatzen duen esplikatu dugu. Lizentziei dagokienez, pausu garrantzitsua eman da Nekazaritza Sailarekin, oraindik lizentziarik ez duten abeltzainek subentzioa kobratzen segituko dutela. Azpiegiturendako dirulaguntzei dagokienez, baserriarrek udaletxeen bidez eskatu behar dituzte, herri-lanak direlako. Proiektuen %60a dago subentzionatua eta gehieneko subentzioa 180.000 eurokoa da (30 milioi pezeta). Gainerako %40a nola ordaindu negoziatu egin beharko litzateke. Baina udaletxe batzuk ez daude horretarako prest. Esne produkzioan, Inlacz-en elkarten dira produktoreak, industriak eta banatzaileak. Estatuan, produktoreen aldetik ordezkari bezala daude hiru sindikatuak, ASAJA, COAG eta UPA., baina pixko bat bereizita aritu dira. Hori izan da industriaren estrategia, «banatu eta irabaziko duzu». Sindikatu guziak elkarrekin joan beharko genuke, baina bakoitza berea begiratzea doa. Frantziako adibidea segitu beharko genuke. Han esne litroaren prezioa urte osoan adosten dute abeltzain, banatzaile eta industriak. Horrela produktoreak badaki zenbat kobratuko duen urte osoan. Hemen hori egitea oso zaila da. Kuotaren arazoa ere kontrolatu nahi zen nolabait, orain 200.000 kiloko kuota duten batzuk milioi bat kilo produzitzen baitute. Kuotak zehatz kontrolatzeko akordioa hartu da. Bertzenaz, esne gehiago produzitzen dugu, ez da kontsumitzen eta prezioak behera doaz. Salmenta prezio minimoak ere adostu dira saltoki batzuekin. Prezio baxua dela eta, esnea ez dadila gantxo produktua izan.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Sakanatik Sunbillara

Epa, lagunak: Lesakako Izaskun Leiza naiz. Lakuntzan bizi naiz eta ttipi-ttapa bezalako aldizkari bat, «Guaixe» izenekoa, jasotzen dut hila-bete hasieran. Sakana-ko berriak ekartzen ditu.

Abuztuaren hasiera-koan gaineratik begiratzen ari nintzela, «Sunbilla» izena ikusi nuen. Irakurri ondoren, oso historio polita iruditu zitzaidan. Ez dakit Sunbillako mutil hori non bizi den. Beharba-dakite hemen barna, orduan, agian, «Guaixe» irakurtzen du eta neska horren mezua ailegatu zaio. Baina, igual, Sunbillan edo bizi da.

Fotokopia bat bidaltzen dizuet ttipi-ttapan jarzeko (nahi baduzue, noski). Jarri edo ez, esker-tzen dizuet nire eskutitza irakurtzeagatik behintzat. Agur.


Izaskun LEITZA (Lakuntzatik)



Hiriberritik Sunbillara kontrakorrantean

Jakinarazten dugu erabiltzaileei hiriberritik sunbillara kontrakorrantean...

«Sunbilla» izena ikusi nuen...



Irakurri ondoren, oso historio polita iruditu zitzaidan...

«Sunbilla» izena ikusi nuen...

Advertisement for ICHÉ FUNERARIA ZERBITZUAK, MALDAERREKA, S.L. with logo and contact info.

Advertisement for BIKETA-BIKE, Bizikleta Tailerra, with logo and contact info.

Advertisement for BERA, featuring a portrait of a man and contact info.

Advertisement for BORTZIRI UNSION ANAIK, ERAKUSKETA, with logo and contact info.

Advertisement for H. Lopez iturgintza, listing services like Kalafakzioa and Gas Instalazioak.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Zabalik 02-09-06

«Uste dut txapela nik irabaztea polita izan dela jende askorentzat: ni hamar urterekin pilotan oso txarra nintzen eta nik baino klase handiagoa zuten pilotari asko zeuden; baina entrenatzen segi eta segi, eta azkenean nire helburura iritsi naiz».

«Beti izan naiz ameslari samarra, buruan amets asko nituen, baina denbora pasa ahala, ez dakit onerako edo txarrerako, gero eta errealistagoa naiz».

Abel BARRIOLA  
Leitzako pilotaria  
Zabalik 02-09-06

«Zambrak guk pentsatu bezala funtzionatzea nahi dugu, bakailu eta pastilla diskotekatik guziz urrun. Besta eta aisialdirako gunea izatea nahi dugu, ez Gipuzkoan bezala, dena ikusteko egiten dutela. Guk parte hartzea nahi dugu. Kursaal edo Iruñeko auditorio berria ikusi, kontsumitu eta ateratzeko dira. Guk, Tigres del Norte ikusteaz gain, dantza egin edo garagardoa hartzeko aukera eman nahi dugu».

Juantxo RODRIGUEZ  
Zambrako zuzendaria  
Diario Vasco 02-09-04

• 11 GALDERA LABUR •



**Mari Jose LARRAIOZ** *Urrozko alkatesa*

**Alkatesa Urrotzen eta idazkari hainbat udaletan. Herriko Etxeak zure bigarren etxebizitza dira?**

Nahiz eta gustoko lana izan, nere Oizko etxea ezin dute ordezkatu Herriko Etxeek.

**Urroztarrek nola hartzen dute lehendabiziko emakume alkatea?**

Uste dut naturaltasun osoz hartu nautela alkate gisa.

**Eta bertze herrietako alkate-zinegotziek?**

Gauza bera.

**Bestetan zein ekitaldi ez duzu galzten?**

Umeen eguneko jokoak eta herri bazkaria.

**Eta zer gustatuko litzaizuke ekartzeari?**

Profesionalen arteko pilota partiduak.

**Sanmigeletan, Urrotz edo Igantzi?**

Urrotz, norbere herria bezalakorik...

**Bestak, gauz edo egunez?**

Egunez, hiru seme-alaba ditudalako.

**Leurtzako urtegia edo Hondarribia-ko hondartza?**

Biak ditut gustokoak.

**Bortzirriak eta Malerreka ongi eza gutzen dituzu. Bakoitzetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Bortzirietako euskaltzaletasuna eta Malerrekako ingurua eta lagunak.

**Zein premia ikusten diozu Urrotzi?**

Gazte jendea hemen gelditzea nahi nuke.

**Nola indartzen ahal da herri ttikien etorkizuna?**

Denon elkartasunarekin eta zerbitzu amankomun gehiago jarritz.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujantadoa' Muzioa  
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut

Phone 948 631 343 BERA - Phone 948 637 172 LESAKA

**UNIONE - COZOTECIA**

Altzate, 19-948630786 •BERA

**BAR Botxo OSTATUA**

© 948630052 •Zalain•BERA

**ZJ**  
**Zalain**  
jatetxea

948 631 343 • BERA - NAJARRROA



## INGURUMENA

# Bidasoaren Eguna irailaren 22an

Bigarren urtez antolatu du Aizkolegi taldeak

### ttipi-ttapa

Igande honetan, irailak 22, egingen da bigarren urtez Aizkolegi taldeak antolatutako Bidasoa erreka-ren eguna. Joan den urtean bezalaxe, goizez bilduko dira herriz herri zaborra biltzen ariko diren boluntarioak. Errekak garbitu ondotik, zaborra

sailkatu eta edukiontzietan sartuko dituzte. Aizkolegik gure eskualdean sentsibilizazio eta ingurugiro heziketarako garatzen duen egitasmoen barnean dago ekitaldia. Joan den urtean 150 lagun aritu ziren eskualde osoan zaborra biltzen eta 250 zabor poltsa atera zituzten.



ARTXIBOKOA

Bidasoatik hainbat kilo zabor atera ziren iaz.

## LANA

# Abuztuan 554 langabetu Doneztebeko INEMen

Abuztuan 554 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, uztaillean baino 4 guttiago. Nafarroa osoan ere beheiti egin du abuztuan langabeziak, 118 pertsona guttiago baitaude lanik gabe, 17.075 guzira.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 35 gizaseme eta 36 emakume eta 25 urtez goitiko 194 gizon eta 289 emakume zeuden langabezian abuztuan.

Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 316 pertsona, industrian 154, eraikuntzan 35 eta nekazaritzan 7, aitzinetik lanik egin gabeko 42 langabetuekin batera.

Abuztuan 394 kontratu berri egin ziren, baina horietatik 24 bakarrik izan ziren mugagabeak. Datu horrek kontratu gehienak uda garaiko hutsuneak betetzeko izan direla erakusten du.

## TURISMOA

# Kalitatearen aldeko apostua egin dute mendialdeko udalek

Hitzarmena sinatu dute Nafarroako Gobernuak eta Cedernak

### ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Komertzio eta Turismo Zuzendaritzak eta Cederna-Garalur erakundeak Nafarroako mendialdeko turismoaren Kalitate Plana proiektua garatzeko el-

karlan hitzarmena sinatu zuten irail hasieran.

Mendialdeko 55 udalek egitasmo honetan parte hartzeko gogoia adierazi dute eta Cederna-Garalur erakundearekin beraiekin ordezkatzeko baimena eman

diote. Ttipi-ttapa aldizkariak hartzen duen eskualdean, Arantza, Baztan, Bera, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Etxalar, Leitza, Lesaka, Oitz, Urdazubi eta Zugarramurdi dira proiektuan sartu diren Udalak.

Proiektuaren aurrekuntua 42.930 eurokoa da. Nafarroako Gobernuak gehienez 30.051 euro jarriko ditu, %70a, eta gainerako %30a, 12.879 euro, Cederna-Garalur erakundeak ordainduko ditu.

616 513 497  
P  
i  
t  
t  
i  
ESKABAZIOAK  
(Arantza)  
3070 DONEZTEBE (NAFARRA)



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

## Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763

## BERA

# Igande honetan egingen da VIII. Dantzari Ttiki Eguna

Amalurraren defentsan erakusketa zabaldu da Kultur Etxean

## Amaia eta Ainhoa

Igande honetan, irailak 22, VIII. Dantzari Ttiki Eguna antolatu du Gure Txokoa dantza taldeak, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz. Santutxu, Lesaka, Deba, Lezo, Zaldibia, Hendaia eta Berako dantza taldeek parte hartuko dute. Goizean, 11:00etatik aitzinera auzotan barna ibiliko dira eta 13:00etan Altzateko karriran elkartuko dira Agintariena eta Agurra dantzatzeko. 17:00etan berriz, dantzari guziek jaialdia eskainiko dute Eztegar pilotalekuan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Herriko Etxeko teilatua eta fatxadak moldatzeko lanetan hasiak dira dagonekoz.**

## Amalurraren defentsan

Irailaren 16tik 28ra, 18:00etatik 20:00etara, Euskal Herriaren garapenari buruzko erakus-

keta ikusgai da Kultur Etxean. Erliebezko mapa interaktibo baten bidez, Euskal Herriko kul-

tura, historia edo ekologiar buruzko informazioa jaso ahal izanzen du bisitariak. Kultura eta

Ingurumen Kolektiboa osatzen duten hainbat taldek sortu dute proiektu hau.

## FLASH

## Ertz Leihoa

Bigarren urtez, Berako Ertz arte guneak Ertz Leihoa jaialdia prestatu du. Aurten, 24 ordu segidan musika kontzertua egingen dute Kultur Etxean. Irailaren 21ean, 12:00etan hasiko dira emanaldiak eta biharamoneko eguerdian akautuko dira. Bilbo, Donostia, Gasteiz, Elgoibar, Orereta, Azkoitia eta Berako taldeak arituko dira inprobisazio lanetan.

## Moldatze lanak

Navex Consultores enpresak kiroldegiko gimnasioko obra egiteko epea hilabete batez luzatzeko eskaera egin zuen uztailean. Irailaren 6rako akautua egon beharko luke, baina badirudi oraindik gibelerratu dela. Bertzalde, Olabarri eraikuntza enpresak Zia erreka zurbia zabalteko lanak hasi zituen abuztu erdialdean.

## Musika eskola

Isidoro Fagoaga Musika eskolan matrikultatzeo epea irailaren 20a arte zabalik dago.

## KIROLA

### Ikastaro ezberdinetan izen emateko epea zabaldu du Toki-Ona udal kiroldegiak

Toki-Ona udal kiroldegiak zenbait ikastarotan izen emateko epea ireki du. Aerobika astearte eta ortzegunetan, 17:30etatik 18:30etara, 19:30etatik 20:30etara eta 20:30etatik 21:30etara eta ortziraletan

20:00etatik 21:00etara emanen da. Mantenimendu gimnasia astearte eta ortzegunetan 10:00etatik 11:00etara eta 18:30etatik 19:30etara. Adintuztat gimnasia astearte eta ortzegunetan 10:00etatik 11:00-

etara. Karatea astelehen eta asteazkenetan, haurrak 19:00etatik 20:00etara eta helduak 20:00etatik 21:30etara. Judoa, azkenik, astelehen eta asteazkenetan emanen da, 18:00etatik 19:00etara (haurrak). Ikastaro gehienak urrian hasiko dira eta izen ematea kiroldegian egin behar da (948 630215).



**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

**Alzuri**

Sukalde tresneria eta opariak  
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370  
BERA

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

## LESAKA

# Aceralia lantegian ELAko zenbait kidek utzi egin dute sindikatua

Horietako batzuk UGTn sartu dira urriaren 8ko hauteskunderako

Aitor AROTZENA

Aceralia lantegian ELA sindikatuko ordezkari-tza CCOOeta UGT sindikatuekin harremanetan dago, etorkizuneko elkarlana nola gauzatu ahal duten zehazteko. Enrique Lopezen erranetan, «*ELAk bertzeko lan molde batekin hasi nahi zuela eta ez gintuela kontuan hartzen adierazi zigun. Baina aitzinetik berteko lantalde batekin ari ziren lanean, sekzio sindikalari bizkarra emanda*». Urriaren egiten dira hauteskunde sindikalak eta, Lopezek dioenez, «*orduan ikusiko dugu langileendako aukera baliagarria garen edo ez*».

Ikamika honen inguruan ELAK bere kideei bidalitako oharrean ageri denez, «*hitzarmen kolektiboaren inguruan, ELAko metalaren federazioaren eta Lesakako ELA sekzioaren arteko ezadostasunak dira afera honen oinarria. Lesakako sekzioak uko egin dio negoziazio estrategia errebindikati-boago bati*». Sindikatuen ustez, «*ekimen hau gauzatu dutenentzako ELA erabili eta botatzeko tresna bat bertzetik ez da izan. Orain,*



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Aste honar honetan zabaldu dute Zambra. Ortziralean, herritarrei zuzendutako inaugurazioa izan zen, dantzari, musikari eta bertolariekin. Larunbatean, jende olde handia etorri zen Los Tigres del Norte aditzera eta astelehenean, Bidasoako Filme Laburren Zinemaldiko sariak banatu ziren. Argazkia, dena den, irailaren 10ean aterata da, prentsari egindako aurkezpenean.**

*kideak eskaintza onena egiten dien sindikatura joanen dira, gure lan il-dotik eta ideologiatik guziz urrun badago ere*».

### Matrikulazio kanpaina euskaltegian

Urtero bezala, Bortzirietako IKA Euskaltegiak euskara ikasi eta hobetzeko matrikulazio epea zabaldu du. Maita la guztiak eta EGA eskainiko dira, ikasleari komeni zaion ordutegian. Izena emateko edo in-

formazioa eskatzeko 948637796 telefonora deitu behar da irailaren 30a baino lehen.

### Liburutegi berrirako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamendua 346.596 euroko dirulaguntza eman dio udalari, liburutegi publikoak egitea helburu duten udal lokalak eraiki eta egokitzeko dirulaguntzen deialdiaren barne-

an. Kopuru hau aurrekontuaren %34a da. Jakina denez, komentuan egin nahi da liburutegi berria.

### Haurrendako antzerki tailerra

Mairu antzerki taldeak 6 eta 12 urte arteko haurrendako antzerki tailerra antolatu du. Izena irailaren 24a baino lehen eman behar da 948 637256 (Maite) edo 948 637855 (Gotzone) telefonoetan. Ikastaroa urriaren hastekoa da.

## PERTSONAIA

Maitte MENDEGIA

### «Pobrezia handia dute Nikaraguan, baina bizitzeko nahikoa»

Abuztu osoa eman du Maitte Mendegiak Nikaraguan, Tipi Tapa herrixkako Olominapa komunitatean, Komite Internazionalisten eskutik joana. Ertamerikako herrialde tiki horretan bizi izan duena kontatu digu. «*Beti izan dut horrelako bidaia bat egiteko ilusioa —dio Maitte—, bertzeko kulturak ezagutzeko. Turismoa egin baino gehiago herria ezagutu nuen*». Komiteen brigada politikoaren ideologia interesgarria iruditut zaitzaion eta Nikaragua hautatu zuen, «*Euskal Herriekin nolabaiteko parekotasuna duelako*». Olominapan ez du proiektu zehatzik gauzatu. «*Bertako familia batekin izan naiz, bakoitzak bere esperientzia kontatuz. Etxeko lanean edo haurrak zaintzen laguntzen nion emakumeari, gizonari frijoleak biltzen...*». Urik edo argirik gabe bizi dira han. Maiteren ustez, «*pobrezia handia dute, baina bizitzeko nahikoa. Gehiago nahi dugu denok, baina bizitzeko guttirikin aski da*».

**BEHEKO ERRETOIA**  
 Lore eta landareak  
 Frain auzoa · LESAKA  
 Tfnoa: 948 637826

**IRU BIDE ERRETOIA**  
 Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**ANIA**  
 janari dena  
 Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETXEA**  
 Zafra  
 JATURETXEA  
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

**Deñe**  
 LENTZERIA  
 MERTZERIA  
 Tfnoa.: 948 627 514  
 Beheko Plaza 8, LESAKA

## ETXALAR

# Euskal Telebistako «Basetxea» programa herrian grabatuko da

Herritik 6 kilometrotara dagoen Bagoleko borda izanen da partaideen bizilekua

## Joseba eta Nerea

ETBko "Basetxea" programaren arduradunek Etxalar aukeratu dute beren saioaren grabaketak egiteko. Bertze hainbat lekutan begira ibili ondotik, Etxalariko Bagoleko Borda baserria bereizi dute lehiaketan parte hartuko duten lehiakideen bizileku. Irailaren 20an hasi dituzte 35 egunez luzatuko diren grabaketak eta herriko hainbat xokotan zehar ibiliko dira probak eginez; Usategiak, infernuko errota eta bertze hainbat toki. Bertzalde, Urrotz, Bertiz eta inguruko herriek probak burutzeko eskaintzen duten aukera aprobeztatuko dute.

Julian lantzi, programaren aurkezleak adierazi digunez «lan talde

osoak Etxalarren pasatuko ditugu grabaketak irauten dituen 35 egunak eta herriko landetxetan hartuko dugu osatatu. Otorduak berriz, Herriko Ostatuan egingen ditugu».

Horrela bada, urritik antzineria "Basetxean" bihurtuko den Bagoleko Bordan eta gure herri inguruan gertatzen denaren berri izanen dugu asteazkenero Gonenkalaren ondotik ETB1ean.

## Urritzokietako bestak

Irailak 15a, Santa Krutz eguna, Euskal Herriko xoko auniztan ospatzen da eta Etxalarren ere Urritzokietako auzotarrek besta izan zuten. Joan den igandearen auzoan bertan da-



goen Santa Krutz ermitan egin zen meza eta ondotik Sainduneko bordako zubian 80 lagun bildu ziren otordu eder baten inguruan. Arratsalde partean Joseba eta Estitxu trikitilariak alaitu zituzten bazterrak, auzoko trikitilari gazteenen laguntzaz. Eguna ongi akabatzeko, eguerdian sobratutako haragiarekin eginiko fritada afaldu zuten.



## Urrezko eztaiak

Eugenio Santesteban Elizondo 1925ean Zubietan jaio zen. Hiru urtekin Etxalariko Perugorrireneko bordara etorri zen. Geroztik Etxalarren bizi da. Isabel Ursuegi Arizaleta 1929an Zugarramurdin sortu eta Etxalariko baserrira etorri zen bizitzera ezkondu arte.

1952ko irailaren 8an ezkondu ziren eta Perukiñeneko borda eta Marimigeleneko borda baserrietan bizitu dira. Bi alaba dituzte eta egun Antsolokuetako Anai-Etxean bizi dira alaba eta bilobarekin.

Ezkondu zirenetik 50 urte pasatu dira eta aurten urrezko eztaiak ospatu dituzte, irailaren 8an familiarteko bazkariarekin. ZORIONAK!

**PINTURAS LEGUIA S.L.**  
Rafa: 600 819 640  
Jose: 666 235 466  
Eztegara 26, 2.C - BERA

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bitirio, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

**HERRIKO**  
ESTATU - JATETXEA

Antsolokue 10 • 48113 • Euzkadi - NAFARROA

## IGANTZI

### Hautzaindegia eta kanpina ez dira eginen

Zenbait hilabete joan dira bi proiektu edo asmoren berri eman genizuenetik. Bata herriko hautzaindegia-rena zen eta Goietxebordan egin beharreko kanpinarena ber-  
tzea. Bada, biak orain-  
goz alde batera utzi di-  
tuzte.

Hautzaindegia martxan paratzekotan zebiltzan gurasoek, Nafarroako Gobernuak paratzen dituen baldintzak ikusi eta hauen ondorioz egin beharreko inbertsioak kontutan hartuta, ezinezkotzat jo dute orain-  
goz proiektuarekin aitzinera segitzea. Goietxebordan kanpina egin nahi zutenek ere ez diote errentagarritasunik ikusten proiektuari Herriko Etxeak paratu dizkion baldintzekin, hala omen diote behinik behin bidali berri duten gutunean.



## Jose Mari Goiak irabazi zuen mendi bizikleta ibilaldia

Bigarren Juan Carlos Garro beratarra ailegatu zen

### Oskar TXOPERENA

Giro ederrarekin joan katu zen Igantziko XII. Mendi Bizikleta Ibilaldia. Urteroko ohiturari jarraituz, hamarrak laurden guttitan ttikienek eman zioten herriari itzulitxa Talaian barrena. Hamar urtetik beheitiko 29 hurrek eman zuten izena. Proba handian, berriz, 104 txirindulari ibili ziren. Partehartzeak jautsiera ttiki bat izan zuen iaz, baina aurtengoan berriz ere 100 partehartzaileen muga hautsi da. Aitzineko egunean egindako eurirengatik lohia ere are-  
rio izan zuten txirindulariek ibilbide guzian.

Seniorretako proba nagusian zonaldeko bi txirindulariren lehia izan zen aipagarriena. Ikuskizun ederra eskaini zieten Joxe Mari Goia eta Juan Carlos Garrok proba ikustera hurbildutako, proba gehienez



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Aurtengo Igantziko Mendi Bizikleta Ibilaldiaren hirugarren postuetan gelditutakoak hartuta sariekin ageri dira argazkian: Joxe Mari Goia irabazlea, Juan Carlos Garro beratarra eta Aitor Urruzola lasartearra.**

elkarrekin ibili baitziren. Azkenean, igantziarrak irabazi zuen plazan jokatutako esprinta. Bigarren aldia da Joxe Mari Goiak herriko proba irabazten duela, 1997an ere lortu baitzuen garaipena. Gazte mailan, bertalde, Iruñeko Alvaro Etxaurik irabazi

zuen eta kadeteetan Joseba Errandonea beratarra izan zen garailea. Azkenik, infantiletan Lurgi Berroeta etxalartarrak irabazi zuen eta Imanol Goienetxe igantziarrak haur mailan. Emakumeetan Laura Hermosilla donostiarrak lortu zuen garaipena.

Uda txarra joan baldin bada ere, azken asteotan emaitza ederra kentzen ari zaio Angel Mari Zugarramurdi Erretorbaitako baratze ederrari. Argazkian ageri diren barazkien pisua aipatzea bertzerik ez dago: patatak kilo terdiko pisua eman du eta tomateak, berriz, bata kilo eta ehun gramokoa eta bertze kilokoa dira. Bere erranetan, orain ematen ari omen da zerbait baratzea.

## Herria ezagutz



### Seroretegia

Goian dagoen argazkiari erreparatzen badiogu etxe ttiki bat ikusiko dugu gaur egun elizak duen sarreraren parean. Bada, adin batetik goitikoek gogoratuko duten bezala, Seroretegia deitzen zitaion. Bere izenak garbi adierazten duen bezala, serora bitzitzen zen bertan. Serora anitzen izenak ageri dira etxe honi lotuak. Arraututako aipamenik zaharrena 1696koa da: 1.L/12 «*cobrado de Luissa de Lumbier diez y seis reales de la arrendacion de la cassa de Seroretegia*».

Ondotik Juana Maria Hubiria, Juana Josefa Iparraguire, Martina Machicote... bizi izan ziren Seroretegia. Zaharrena izanik, Seroretegia aukeratu dugu hemen paratzeko, baina bertze zenbait izen ere izan ditu mendeetan zehar: Casa Seroral, Seroretegia, Seroria, Seroriabatta.... Hagitz etxe ttikia zen (1932/30/11: «*siete metros de fachada portres de fondo*») eta, erran bezala, Elizaren baime-  
narekin, 1940an bota zuen Herriko Etxeak (1940/73.L/53: «*derribar la casa Seroretegia para convertir el solar en plaza pública*»).

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

**SAROB**

okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

## ARANTZA

# Hiru ikasle berrirekin hasi da ikasturtea herriko eskolan

Frontoiaren eserlekuen aldea ixteko lanean ari dira

## Nerea ALTZURI

Ikasturte berrian bete-betean sartu dira gure herrietako gaztetxo-enak. Herriko eskolan ere udako oporretako egunak alde batera utzi dituzte eta 2002-2003 ikasturtea irailaren 5ean abiatu zuten. Aurten hiru haur berri hasi dira Haur Hezkuntzan, denetara hogeita hamazazpi eskolaume daude.

Haur Hezkuntzan bederatzi tiki; lehen eta bigarren zikloan zortzi ikasle, hirugarren zikloan bezalaxe. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan berri, hamabi gaztetxo daude ikastokian.

Iazko lau maixuak ari dira lanean aurten ere, Etxalar eta Igantziko eskoletan ere erlijioa ikasgaia ematen duen maixu ibiltaria ezik, hau berria baita: Juanita Larralde, Jose Ramon Amoros, Isabel Danboriena eta Beatriz Muñoz. Hilabete honetan, goizeko ordutegiarekin ari



ARGAZKIA: KARMELE TOLOSA

**Pilotalekuaren ekialdeko aldea, harmailen gibelean dagoena, ixten hasi dira. Aluminioko eta metakrilatozko leihoekin osaturik dago itxiera pareta, Oraindik ere, lana ez dute akautu, baina frontoiaren barreneko aldea erauntzietatik idor eta haize boladetatik gerizian mantenduko da bederen.**

dira, etxera bazkaltze-ko joanez.

Heldu den hilabete-rik aitzinera, jantoki zerbitzua martxan paratuko da bertze urte batez, eskolako goiz-arratsaldeko jardunarekin batera.

## Oihan probetxamenduak

Iraila hasieratik herriko pilotalekuaren ekialdeko aldea estaltzen ari diren bitartean, Herriko Etxetik bertelako berria jaso dugu. Nafarroako Gobernuak

Apitta eta Zerradoko-borda inguruko parajeen aprobetxamendurako baimena eman du. Haritz amerikano eta pinua entresakan ateratzeko dauden eremu honen 28.000 euroko balioa du.

## BORTZIRIAK

**Endarlatsa eta Bera arteko errepidea moldatzeko proiektua Peyco idatziko du**

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko herrilan, Garraio eta Komunikabidetakoa Departamenduak Peyco, Proyectos, estudios y construcciones S.A enpresari eman dio NA-121-A errepidean Berako saihebidearen akabaila eta Endarlatsako zubiaren arteko zatia hobetzeko proiektuaren idazketa lana. 139.600 eurotan egingen da lan hori, hasierako prezioa baino %17,05 merkeago, hamar hilabete epean. Gaur egun, zati horrek lau kilometroko luzera du. Peyco enpresak alternatiba ezberdinak aurkeztu beharko ditu, ingurumen eragina zehaztuz bakoitzean. Tarte osoak hiru karril eta bidebazterra izanen ditu eta Endarlatsan zubi berri bat eraiko da. N-121-A errepidea moldatzeko 1990. urtetik egiten ari diren lanetatik azkena izanen da Bera eta Endarlatsa artekoa.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328+133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**ALBERGIA JATETXEA**  
© 948 634179  
ARANTZA

**zapatadenda.**  
**kalotxa.**  
**osagarriak.**  
**konponketak.**

**Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516**

## MALERREKA

# Doneztebeko besta tikiak aste hondar honetan ospatuko dira

Iturenen, berriz, Joaldunen Eguna izanen dute larunbatean

### ttipi-ttapa

Ortziral honetan, irailaren 20an, hasiko dira Doneztebeko besta tikiak, Josu Juanena Petrirena akordeolariari eginen zaion omenaldiarekin. 19:30etan, Doneztebeko Udalak ongietorria emanen dio akordeolariari, musikaren munduan egindako bidea saritzeko plaka bat eskainiz. 20:00etan Josu Juanena berak botako du beste hasmentan emanen dien suziria. Ondotik, kalejira izanen da Beti Alai txarangarekin. 21:00etan herri afaria izanen da Beti Alai txarangarekin.

23:00etatik 3:00etara dantzaldia izanen da Santa Luzia Plazan, Jallisko Band taldearekin.

Larunbatean ere besta giroan ibiliko dira doneztebarrak. 10:00etan argi soinuak izanen di-

ra Beti Alai txarangarekin. 10:00etan gazte txoen laxoa partidua jokatuko da Bear-Zana pilotaplazan. 12:00etan haurrentzako Gorritiren erakustaldia izanen da Bear-Zanan. 17:00etan haurrentzako patinaje besta izanen da leku berean. 20:00etatik 22:00etara eta 1:00etatik 4:30etara dantzaldia izanen da Santa Luzia Plazan Eklipse taldearekin.

### Joaldunen Eguna Iturenen irailaren 21ean

Larunbat honetan, irailak 21, ospatuko da Iturenen Joaldunen Eguna. 10:00etan joaldunak eta trikitilariak Ameziara abiatuko dira baserrietara bisita egitera, eta eguerdi aldera txalapartaren soinuak lagunduta herriratuko di-



ARTXIBOKOA

Ekitaldiz betetako Joaldunen eguna izanen da larunbat honetan Iturenen.

ra. Joaldunak Ameztian diren bitartean herrian txaranga arituko da. 13:00ak aldera aizkora ikuskizuna izanen da herriko plazan, bertan izanen baitira Mugertza aita-semeak. Aita altueran ariko da enborra mozten, eta semeek berriz, beraien artean eginen dute lehia. Bazkaria udaletxeko ganba-

ran izanen da eta txartelak 24 eurotan salgai daude Bereau janaridenda eta eta Ariztegi harategian (ikasle gazteek 20 €). Bazkalaitzin eta ondotik Xabier Amuriza eta Amets Arzallus bertsolariak ariko dira. Arratsalde eta gauetz dantzaldia izanen da Herriko Etxeko arkupetan.

8-12 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako bertsolaritza ikastaroa prestatu du Euskara Zerbitzuak

### ttipi-ttapa

Aurten ere Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gaztetxoendako bertsolaritza ikastaroak sortu nahi izan ditu herrietan. Helburu hau betetzeko eskolaz-eskola informazioa eta izena emateko orribikoa partitu dute. Zortzi eta hamabi urte arteko neska-mutikoak izanen dira eskola hauetan ibiliko direnak. Malerrekako, bertsolari gazteen eskolatzearekin ereindako haziak emanen duelakoan daude. Joan den urtean, Ituren, Beintza-Labaien, Sunbilla eta Donezteben sortu ziren bertso eskolak. Euskara Zerbitzuak bertso eskolatan izen ematera animatu nahi du, eta bide batez, taldea sortzen bada, klaseak norbere herrian bertan emanen direla gogorarazi.

### TOLDOAK

SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrek • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

### PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

### GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

### Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxes: 948 631 | 69

## URROTZ



## San Migel bestak irailaren 27tik urriaren 1era

Olasagasti eta Arrospide,  
Mindegia eta Nazabalen kontra  
ariko dira egun haundian

### Irailak 27 ortzila

**20:00etan** ALTXAFEROAK eta ezkilak bes-teei hasiera emanez.  
**20:30etan** ZOPAK herriko ostatuan.  
**00:00etatik aurrera** dantzaldia JALISCO BAND taldearen esku-

tik.

### Irailak 28 Larunbata

**Eguerdi**an PILOTA PARTIDUAK.  
**17:00etan** haurren arteko pilota partiduak.  
**Arratsalde**z eta **gau**ez dantzaldia JALISCO BAND taldearen esku-

### Irailak 29 Igandea

**San Migel Eguna**  
**11:00etan** MEZA NAGUSIA, herriko zaindariaren ohorean.  
**Ondoren** hameketakoa Herriko Ostatuan.  
**13:00etan** AIZKORA-APOSTUA: OLASAGASTI eta ARROSPIDE, MINDEGIA eta NAZABALEn kontra.



ARGAZKIA: MARI JOSE LARRAIOZEK UTZIA

**Aizkora apostua** eta ahare jokoa 1981 urteko San-migel bestetan.

**15:00etatik 19:00etara**  
HAUR PARKEA.  
**Arratsalde**z eta **gau**ez dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariarekin.

### Irailak 30 Astelehena

**11:30etan** MUS txapelketaren hasiera.  
**14:00etan** BERTSO-BAZKARIA. Bertsolariak: Xebastian LIZASO eta Andoni EGAÑA.

**Arratsalde**z eta **gau**ez dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariarekin.

### Urriak 1 Asteartea

**11:30etan** MUS txapelketaren bukaera.  
**17:00etan** HAUR JOKOAK.  
**Ondoren** GORRITlren animalien erakusketa.  
**Arratsalde**z eta **gau**ez dantzaldia JOXE AN-



## BELARRA

OSTATUA  
JATETXEA

Amezia karrika  
DONEZTEBE  
Tfnoc: 948 45 03 06

**SALZONES UDANE, S. L.**

*Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua  
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550





**Irailak 21**  
**Larunbata**

**16:00etan** XXIII. Artzai Zakur Lehiaketa Meakaundiko zelaian.  
**19:00etan** Herri Kirolak. Herriz Herri txapelketaren finala.  
**20:30etatik aitzinera** Dantzaldia IRATS Trikitixa taldearekin.

**Irailak 22**  
**Igandea**

**12:00etan** Goitibehera. Gero Bazkaria.

**Irailak 27**  
**Ortzirala**

**16:00etan** Mus eta partxis txapelketa.  
**20:00etan** txupinazoa eta ezkil jotzea BETI ALAI txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik karrika buelta kanailu eta buruhaundiekin.  
**00:30etatik aitzinera**



Dantzaldia MINDEGIA TRIKI DANTZ taldearekin.

**Irailak 28**  
**Larunbata**

**San Migel Bezpera**  
**9:00etan** Gosaria ZIO-BI mendian.

**9:30etan** Plater tiraketa.  
**10:30etan** Karrika buelta gaiteroekin.  
**11:00etan** Pilota partiduak. Herriko haurren txapelketaren finala.  
**18:00etan** Herri Kirolak..  
**21:00etatik 22:00etara**

**eta 00:00etatik aitzinera** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Tartean MUXIKOAK (Bi-Biden).

**Irailak 29**  
**Igandea**

**San Migel Eguna**  
**10:30etan** Karrika buel-

ta herriko txistulari eta dantzariekin.  
**11:00etan** Meza Nagusia San Migelen omezez, herriko Abesbatzak kantatua.  
**12:00etan** Soka Dantza.  
**17:00etan** Igantziko

**IRUGLAS, S.L.**  
GRABADOS  
**MARMOLAK ETA GRANITOAK**

- Hileta artea
- Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Ispiluak, kristalak eta zeramika grabatuak



Fraineko bidea  
© 948 637 412  
**IGANTZI**

dantzarien emanaldia.  
**18:00etan** Pilota partiduak:  
 Gazteak: Gonzalez - Elizalde; Etxebeste - Arraztoa.  
 Afizionatuak: Mikelperizena - Retegi VII; Zerezo - Iparragirre.  
**20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik aitzinera** Dantzaldia EGAN taldearekin. Tartean MUXIKOAK Bi-Biden

### Irailak 30 Astelehena

**Egun guzian** jokoak, gaztelu haizatua eta Tren Txu Txu izanen da.  
**11:00etan** Karrika buelta, Gaitero, kankailu eta buruhaundiekin.  
**14:00etan** Herri bazkaria Peñagarikano eta Irazu bertsolarekin. Trikitixa. Ondotik, basurdeak eta aparra.  
**20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik aitzinera** Dantzaldia EGAN taldearekin.



Musikarien erritmora dantzatu behar izaten dute herriko dantzari ttikiek. Beraien gisara aritzeko hor izaten dituzte gaztelu haizatuak.

ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA



**JOSE AGERRE**

**PINTURA LANAK**

- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Moketa eta zintasol

© 610 22 15 28 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK

*Besta ederrak pasa!*

**TALLERES BERRIZAUN**  
 GASOLINERA LESAKA  
 IMANGI, TELLETXEA ZORRIA

**Gas-olioa etxez etxe banatzen da**

Tel. 948 637 460

31770 Lesaka (NAVARRA)

**BI-BIDE**

ostatu  
janaridenda

BESTA ALAITSUAK  
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 948 63 72 78  
IGANTZI

**JATETXEA**

ILDA BILLO

**Besta zorionsuak opa dizkizuegu**

Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

**IGANTZI**

OSTATUA  
JATETXEA  
HOSTALA

**Ongi pasatu bestak!**

Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02

UDAZKEN / NEGUKO JOERAK  
2002-2003

Haurrak

Emakumeak

Gizonak



**moda**

*gehigarria*



# HONORIO TABERNA



Gizaseme eta Emakumeendako  
Boutique

Tfnoa: 948 450 109 - Merkatarren karrika 29 - DONEZTEBE

# IPINGI

jantzidenda



Santiago 88  
ELIZONDO

Tfnoa: 948 580 939

# ALDAPA

- Lois neska mutilentzat
- Udazkeneko aurrerapena  
-%5
- Bertze markak:  
Skunk Funk  
Magic  
Cannibal

Momentuko moda aukeran,  
HEMEN ETXE ONDOAN  
Tfnoa: 948 63 41 56 • ARANTZA



Molino oinetakoak  
Kolon pasealekua 29 - IRUN  
Tfnoa: 943 611 266



# FANTXIKE

Mertzena · Opanak · Lentzena  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Jaime Urrutia 15, ELIZONDO - Tfnoa: 948 580 312

# 2002 - 2000

## EMAKUMEAK

Emakumearen berezko izaera azpimarratu-ko duen moda izanen da udazken eta negu hotetan etorriko dena.

Bizimodu modernoan sarturik dagoen emakumeak, aukera ugari izanen ditu eskura, beti ere, bere izaera hobekien erakusten duen estiloa eta egoera pertsonalaren arabera.

Horien artean daude emakume sensual eta erromantikoa, garai bateko satenezko ehunak eta fantasiatzko elementuak konbinatzen dituztenak, tula, apaingarri diztiratsu eta ehun gardenak kolore bizieta.

Bestetik, emakume jantzi dotoreak, gizonetzkoen arropetan inspiratuak, kolore ilunak eta hotzak nagusi dituztenak.

Emakume ausart eta dotorearentzat larruaren luxua artilezko ehunekin konbinatua, kolore naturaletan.

Eta azkenik, emakume hippy eta modernarentzat, arropa informalak elementu sofistikatuarekin elkartzeko dituenak, lumak, larruzko lepokoak, metalezko diztirak...

Azken finean estilo ugari arropak emakume bakoitzak bere gustoko elementuak aurkitzeko, eta nola ez, bere itxura eta izaera pertsonala indartzeko.



## HAURRAK

Haurrei estilo batekin identifikatuak sentitzea gustatzen zaie, talde bateko kideak edo partaideak izan nahi dutelako, bere lagunentzako taldekoak.

Aurtengo denboraldian, erabiltzeko errazak dira jantziak ehun xuabe eta

erosoekin eginak: pana, kotoia eta material naturalak erabiliko dira, klasikoak, modernoak edo surferoak, beti ere lasai sentitzeko eginak.

Koloreari dagokionez, kolore xuri eta argiak, laranja, gorrixak...



# 03 udazken negu -

## GIZONAK

Arropa erosoak eta material teknologikoen (PVC, plastikoak...) osatuko dute denboraldi berri honetako proposamenak gizonetako janzteko.

Material berriekin egindako arropak nagusituko dira, jertse lodiak eta erabilgarriak, galtzak eta berokiak.

Alkandorek izanen duten estilo modernoarengatik desberdindu egingen dira orain artekoekin, batzuk ohikoak den baino botoi handiagoekin edo kremailekin bestela.

Tweed eta puntuzko ehunak erabiliko dira gehien edozein diseinutan ere, panaren goxotasuna baztertu gabe.

Larrua ere presente izanen dugu denboraldi honetan, batez ere jaka, beroki eta galtzetan.

Kolore leun eta nabarrak izanen dira estiloa markatuko dutenak, berdexka, marroi ilun, grisa... eta nola ez, guzien gainetan nagusi izanen den beltz kolorea.

Trajeek, estanpatu geometrikoak, kuadroak eta marra diplomatikoa eramanen dute.

## ZAPATAK

Diseinatzaileak oinetako klasikoe-tara bueltatu dira. Antzinako elementuak eta estiloak, egungo moda eta kontsumitzaileen arabera egokitzeko berreskuratu dituzte. Material berri, teknologia eta modelo klase aunitz dago. Kolekzio eroso, moderno eta xarmangarria da guztiaren emaitza. Behar desberdinak betetzeko eta nabarmentzeko edozein gauzak balio du.

**MERCHÉ**  
MODA HOMBRE



## EZKONTZETAKO JANTZIAK

Marka bereziak:

Giovani Valdi  
Sandro Sellini  
Caramelo Gala

Serapio Mugika, 11 · 20302 IRUN  
Tfnoa: 943 61 26 26




**ANTOJOS**  
Irún, S.L.

- pre-mama
- taila handiak

Gure kolekzio berria ikusgai duzu dagoenez arropa beltzak, marroiak, bakeroak... Ama berriendako azkeneko nobedadeak eta baita neurri handiko arropak ere

Ardetx Jauregia - Bera 9 · 20302 IRUN  
Tfnoa eta Faxa: 943 63 41 70



Ostargi  
Optika

## OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lenilen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 3 urteetatik aurrerako haurren errebisioa

Bidasoa 8  
BERA  
Tfnoa: 948 630 752

**Nerea**  
Ainetakoak

San Miguel 2,  
DONEZTEBE



**Harieruz**  
LENCERIA

Parrokia 11,  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 112

# Datozen joerak

## EMAKUMEAK

Estiloari dagokionez, kutsu etnikoa duten jantziak izanen dira, kultura desberdinetako estiloak nahasiz (

Indiar eta txinatar eragina dutenak bertzeak bertze).

Tela desberdinak elkarrekin nahasiak: pana, ante eta puntuzko gona loredunak, loneta eta pana fin eta lodiak tartekatzen dituen

marra zabaleko galtzak, kolore bizi eta desberdinekin konbinatuak. Originaltasuna hitzarekin definituko genuke hobekien.

Bakeroak garrantzia handia izaten segitzen du: soinekoak, gonak, boltsuak, gerrikoak... Belusarekin, zeta-rekin eta panarekin nahasiriko bakeroa. Zahar itxurako galtza bakeroak, gastatuak, zeta eta belusa bezalako ehun dotoregoarekin eramateko. Bakeroa eta fantasia bateratzen dira, elkarrekin doaz biak.

Kolore sorta handia dago aukeratzeko eta garrantzitsuena, negua alaituko diguten eta ongi doazkigun kolore bizi eta indartsuak erabiltzea izanen da: beltza, xuria, berde desberdinak, gorria, marroiak...

PVCzko ehun berritzailez egindako berokiekin ongi konbinatzen duten blusa arinak, hotzatik babesteko artilezko beroki lodiak...

Osagarriek arroparen joera berdina izanen dute: Lits handiko eta harri inkrustazioak dituzten gerrikoak... Diseinua eta erabilgarritasuna dira gakoak boltsuak eta motxilak aukeratzekoan, bere funtzioa betetzeaz gain, itxura modernoa ematen dioten kremailerekin.

Eraztun, belarritako, lepoko eta orohar bitxiak edo bisuteria kontuan hartuz, kristala eta "Swaroski" harriak aunitz ikusiko dira kolore biziekin, zilar zaharkituekin, eta hori bai, tamaina handian.

## GIZONAK

Kamixetak motz eta estuxeagoak izanen dira, mauka eta gorputzean koloreak eta esteanpatuak nahasiz. Kremailerak jertse eta txaketetan ere ikusiko dira jertsearen lepoan, alde batean goitik behera zeharkatzen dutenak... guzti hauek gorria, beltza eta morearen antzeko koloreekin. Berokiak ere mikro-fibra bezalako ehun berritzaileekin eginak dira, barrutik polarrarekin, neguko egun hotzei neurria hartzeko.



Ezlegara 12 · BERA Tfnoa: 948 631 425

**ARIMAK GAUZA GUTI BEHAR DITU; GORPUTZAK, AUNITZ.** GEORGE HERBERT



**ZAPATADENDA**  
Parrokia, 17 • DONEZTEBE  
948 450 289

**Ibarrola**  
Haurrendako arropa 0-14 urte


Parrokia 6  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 463

**DIESEL**  
TODAY WITH

**JUAN J. PIKABEA**


Arropa: konfekzioak  
Senargaienezko trajeak  
Gizonendako jostugintza  
Egindako trajetan aukera zabala  
Galtzak 70 neurria bitarte  
Atorrak 54 neurria bitarte  
Jertseak ere taila handiak

Amazha z/g.  
DONEZTEBE  
948 451 670



MODA - PREMAMA

HAURDUN ZAUDE?  
*Zatoz! eder jartzeko behar duzun guztia daukagu*





**DESGUACES**

- Istripua izan duten ibilgailuak erosten ditugu
- Harrapatzeko zailak diren piezak
- Repuestoak

© 608 876 456 • 948 637 552  
Lesaka-Igantzi errepidea, 2 km. • **IGANTZI**

**Jose Canabal**  
Instalazio elektrikoak orokorrean

**ARGIZTAPENA  
MATXURAK • ALARMAK**

☎ 666 57 58 99 - 948 637 541  
**IGANTZI**

Igantziko Harrobia

☎ 948 637288

*Besta ederrak pasa!*

**BERRAZTUN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**ATM S.A.**

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantziko Bentak  
☎ 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

**OKILA**  
Zurgindegia

Tarimak, ateak, leihoak, eskailerak...  
Obretako lanak orokorrean

Lander Sein - Mikel Arburua

Piedade gaina z/g • 31790 Igantzi  
☎ 948 637 249

**SEGIROS LAGUN ARON ASEGURILARI**

*Klase guzietako aseguruak herrian bertan!*

Oskar Txoperena  
Baratzondo 1  
**IGANTZI**  
Tel.Faxa: 948 637236  
Mug.: 610 507579

**rtzi U I**

F T K ISTEGI - IN IM TEGI

S n m l k ust n b h n

G r i n t z k t s t k

Ezt r z h E N  
T l - F x 3 15 21

**Canon**

SISTEMAS DE OFICINA DEL BIDASOA, S.L.

→ FOTOKOPIAGAILUAK      → ORDENAGAILUAK  
→ FAXAK                      → INPRESORAK

**ZERBITZU OFIZIALA**

Santiago 7 • 20304 IRUN  
Tel.: 943 631818 • Faxa: 943 631515  
e-mail: bidaso@bidaso.canon.es



*Igantziko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu*  
**Besta Zoriontsuak!**



*Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue*  
*Igantziar eta bisitari guziei*



## GOIZUETA

# Kezka herrian insignis pinuaren gaitzarengatik

**Esteban AROTZENA**

Urte askoz prozesionaria izeneko harra izan da pinuaren etsirik gogorrena, baina azkenaldi honetan beste gaitz bat ere azaldu zaio gure herriko biziraupenerako hain garrantzitsua den zuhaitz klase honi. Gainera, tekniko jakintsuenek ere oraindik ez dakite zerk sortzen duen edo nondik heldu den.

Goiko muturretik hasita ihartzen joaten da gaitzak jotako pinua, eta oraingoz insignis gaitzak dira kaltetuena. Laxaro Apezetxea mendietako zinegoziak esan zigunez, honen erruduna ontoren bat dela gauza jakina omen da, baina ezin omen diote inon igerri zein motatakoa den. Dena den, Laxa-



ARGAZKIAK: ESTEBAN AROTZENA

**Gaur egun pinua da herriko aberastasun handiena. Ondorengo urtetan ere horrela izanen ote da?**

rok zioenez, insignis gero eta gutxiago landatzen da herri lurretan, eta Nafarroako Gobernu eta udalaren elkar-

lanari esker hostozabal edo «frondosa» mota ezberdineko zuhaitzez betetzen ari dira mendiasko. Euskal Herrian

hain ezagunak ez diren pinu klaseak ere landatzeko asmotan da udala, secuoia amerikarra besteak beste.

## ARESO

# Aralarrera bisita egin zuen herriko parrokiak

24 ikaslek hasi dute ikasturtea

**Juana Mari SAIZAR**

Irailaren 1ean parrokiako gurutzeak Mikel Goiaingeruari bisita bueltatu zion. Larraungo erromesaldian eta beste gurutzeekin batera, Guarda Etxetik ehun pertsona abiatu ziren otoitz eginez. Aurtengoan bazkaririk ez zen egin, Aralarko obrak direla eta ostatua itxita baitago. Baina beneta-

ko arazoa dena geldirik dagoela da, erantzunkizunak batzuek beste-ari botatzen dizkiote eta oraindik obrak hasi gabe daude. Larraungo arziprestazgoak seriotasuna eskatu zien arduradunei.

### 24 ikaslek hasi dute ikasturtea

Ikasturte berriari hasiera eman zaio eta ikas-



Mikel Goiaingeruari bisita bueltatu zitzaion

leen kopurua 24koa da. Ikasle bat Leitzara DBH egitera joan da eta 3 urteko mutiko bat herrian hasi da. Aurtengo berrikuntza ordutegia da: 9:10etan sartu eta 16:40etan aterako dira.

**Gripearen** aurkako txertoa irailaren 23an eta urriaren 7an emango dute mediko kontsultan. **Usategien** zozketa, berriaz, irailaren 21 eta 28an, 19:00etan udaltxean.

## ARANO

# Suroko ur sareak berritzeko dirulaguntza eman du Gobernuak

Oihanberritze lanetarako ere subentzioa jasoko da

**Kontxi KLABER**

Suro auzoan edateko ur-hornidura eta ur zikinen sareak berritzeko eta geroko zolaberritze lanak egiteko dirulaguntza ematea onartu du Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio Departamenduak, 2001-2003 Hirurteko Planaren barruan. Lehendabiziko lanetan, 1.423 metroko tuberia berria sartuko da.

Lanen aurrekontu osoa 104.355 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 44.289 ordainduko ditu.

### Oihanberritze lanak

Nafarroako Gobernuako Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduak, 114.573,23 euroko hainbat urterako gastua onetsi du Santutxo, Kupilzar eta Zabalauindiko herri lurretan oihaneztatzeko lanak egiteko.

Gastu hau 2002 (6.010,12 €) eta 2003ko (108.563,11 €) aurrekontuen kargura eginen da.

## LEITZA

# Ikasturte berriari ongiatorria eman diote herrian 441 ikaslek

27 haurtzaindegian, 194 Erleta eskolan eta 220 Amazabal institutuan

**Mikel ILLARREGI**

Herri hau horretan ez da ezberdina: uda eta udakoak pasa ondoren ikasleak ere beraien zereginetara. Hiru dira eskolak edo hezkuntza zentroak. Alde batetik Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza bestetik eta, nolabait borobiltzeagatik, institutuak eskaintzen dituen sail ezberdinak.

Haurtzaindegian 12 dira «munduxo» hasien diren haurrak (urte bat betea), batzuk orain eta beste batzuk ilbeltean. Dena den, iaz hasitako 15 lagunekin 27ko taldea osatzen dute Haurtzaindegikoek. Hemen andereño lanean Maite Barriola eta Karmele Lazkano ari dira azkeneko 15 urte haue-tan. Kopuru orokorra dela eta, hiru haur geratu dira kanpo eta horrek kezka sortzen du. Udaleko ordezkariekin biltezeko asmoa dute eta honetaz gain, hegoaldeko beste erkidegoan jadanik martxan den 0-3 urtekoen eskolaratze proiektua aztertu nahi dute.

Erleta dugu Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroa, guztira 194 ikasle. Haur Hezkuntzan (3 urte) 20 ikasle sartu dira aurtan eta lehendik 28 zeuden (4-5 urte), 48 guztira. Lehen Hezkuntzan taldeak binaka doaz zikloak osatuz, horrela 1. zikloan 39 ikasle, 2.ean 52 eta 3.ean



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

**Guzira 27 hurreko taldea hasi da aurtan haurtzaindegian, 12 berriak.**

55, 146 guzira. Hauetatik, aurtengo ikasturtean 2 besterik ez dira atzerritik etorritakoak. Ikasle hauek hezitako 22 irakasle daude arduradun. Hauetatik lau bakarrik dira behin behinokoak. Zuzendaritza taldea Imanol, Pilartxo eta Begoñiak osatzen dute.

Azkenik Amazabal institutua dugu eta hemen ikasturtea bestee-tan baino beranduago hasi dira, hilen 16an aurkezpena eta 17an "benetako" hasiera. Batetik DBH-1 egin behar dutenak 31 ikasle dira. DBH-2, 36. DBH-3, 50 eta DBH-4, 43 ikasle. "Dibertsifikazioan" 12 ikasle daude. Azkenik, Batxilergoa-1, 26 ikasle eta Batxilergoa-2, 22. Guztira, 220 ikasle. Ira-

kasleak guztira 27 dira eta hauetatik 12 baino ez dira behin betikoak edota finkoak.

Zuzendaritza aurtan berriua izan da eta taldeko kide berriak honakook dira; Maria Luisa Mateo zuzendaria, Beatriz Arizaga ikas-keta burua eta Pello Zestau idazkaria.

Eskolaz ari garenez, eskolako gimnasioan berritze lanak egiteko, DBHko eskolako komunak berritzeko eta gasoil depositurako tuerberia egokitzeko udalak, lehentasunezko lanak izendatuz, 40.698 euroko aurrekontua prestatu du. Eskatutako beste inbertsio batzuk, erreserban geratu dira eta urte amaieran edo hurrengoan eginen dira.

## Etxez-etxeko laguntza

Eskaerak gero eta ugariagoak direnez, ongizate mankomunitateak etxeko laguntza zerbitzua ugaritzea eta hau arautzeko ordenantzak arautzaea erabaki du. Zerbitzua ongi garatzeko eman beharreko zerbitzuaren irizpideak finkatu dira; gizarte laguntza, laguntza pertsonala, gizarte eta osasun laguntza, etxeko laguntza, gizarte eta hezkuntza laguntza, ... Udalak, Nafarroako Gobernuak eta eza-rritako tasek finantziazten duten zerbitzuaren funtzionamendurako, egoera bakoitzaren balorazioan, eskaeren balorazioan eta eginbeharretan oinarrituko dira.

## FLASH

## Torrea egoitza

Aurreko alean azaltzen genuen bezala, Garzonen aginduz Torreako egoitza (bulegoak) itxita, prezintaturik dago. Taberna zabalik da, oraingoan. Egoera honi erantzun nahian, hainbat ekimen bultzatu dituzte aspaldi honetan; irailaren 1eko manifestazio jendetsua, 6an udaletxean batzar berezia. 12an, isilaldia eta burrunba, 14ean manifestazioa Bilbon...

## Mendiko lanak

Mendian egin beharreko garbiketa lanak Berdabio Basogintza enpresari eman zaizkio. Hauen lizitazio prezioa 11.750,52 eurokoa izan da eta egin beharreko lana Itzaira eta Ozizpen.

## Joskigintza ikastaroa

Ikastaroa antolatu da eta interesaturik dagoenak udaletxean izena eman behar du irailaren 25a baino lehen.

## Zinema garaia ere hastear

2002-2003 denboraldia urriaren lehen asteburuan hasiko da. Horretarako irailaren 21ean, 19:30etan zinemari bilduko dira horretan lan eginen dutenak, saioak prestatzeko asmoz. Aurtan behar bezala aritzeko beste talderen bat osatzea eskatzen dute antolatzaileek.

## Maxurrenea Kultur Etxea

Maxurrenea=Kultur etxea adierazpena izenpetu zuten talde edota elkarte guztietako ordezkariak konbokatzen dira datorren irailaren 23an, Aurrerari arratsaldeko 8etan eginen den bilerara.

**BAZTAN**

## Nekazalpunk eguna irailaren 28an eginen da Elizondon bigarren urtez

«Erokeri desarrollista gelditu!» lelopean hainbat ekiteldi gauzatuko dira

**ttipi-ttapa**

«Erokeri desarrollista gelditu!» lelopean, irailaren 28an Nekazalpunk Eguna burutuko da Elizondon. Bigarren aldia da egun hau antolatzen dena eta iaz bezalaxe, hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun osorako: mozkin ekologikoen merkaturia, material kontrainformatiboa, eskulangileak, erakusketak, taloak, txotxongiloak, karrika animazioa, energia berriztagarriak, tailerrak, grafitiak, bazkari autogestionatua, Lesakako Maiuru antzerki taldearen «Torturik ez!» antzezlanak, joku ez konpetitiboa, mani-kalejira, Elektrotuna, Bizkargain fanfarrea, herri afari begetarianoa Lapikuren eskutik eta kontzertua Disorded, Borrokan eta Pateando Porkeria taldeekin. Horretaz gain, norbere irudimenak ematen duena garatzeko aukera ere izanen dela jakinarazi dute antolatzaileek, baita kan-



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Ornoz-Mugairiko Jorge Oteizak eta Jai bere zakurrak irabazi zuten Uhartearakilgo XXXV. Artzain Zakur Lehiaketa. Gainera, arraza oneneko saria ere Jaik eraman zuen. Aste hondar honetan Oñatin jokatu beharreko Euskal herriko Artzain Zakur lehiaketan bi zakurrekin parte hartuko du Oteizak, Uharten Labri bere zakurrarentzat izan baitzen bigarren saria ere.

patzeko tokia izanen dela ere.

**Oilagor ehizirako enkantea**

Erro eta Baztango bailarek osatzen duten

Kintoako Mankomunitateak bere eremuan oilagor ehizian aritzeko eskubidea enkantean emanen du. Enkantea heldu den astelehenean, irailaren 23an, eginen da Balleko Etxean,

12:30etatik aitzinera. 2002 urtetik 2007ra emanen da kotoa eta denboraldi bakoitzeko hasierako prezioa 6.000 eurokoa da. Proposamenak sobre itxian aurkeztu behar dira.

**FLASH**

**Liburutegirako dirulaguntza**

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak 352.607,38 euroko dirulaguntza eman dio Balleko Udalari, liburutegi publikoak egitea helburu duten udal lokalak eraiki eta egokitzeko dirulaguntzen deialdiaren barnean. Kopuru hau aurrekontuaren erdia da.

**Aritzakunen**

lurrari kontzeko paretak egiteko 88.880 euroko dirulaguntza emanen dio Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako Departamenduak Balleko Udalari.

**Gartzaingo eskola**

handitzeko lana Gartzaingo Uncar igeltseritzaren enpresak eginen du, 50.512,11 euroren truke.

**Elizondoko Haur Hezkuntza lehen zikloa**

Elizondoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroa Cristina Goñi Etxenike, Noemi de la Serna Martirena, Murtxe Garcia Etxandieta Maider Bereau Altxuk kudeatuko dute ikasurte honetan 76.111 euroren truke.

**Gierreseta**  
**OSTATU - JATETXEA**  
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*  
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

**FANTXIKE**  
 Mertzera Opanak  
 Lertzera  
 HAUR, GAZTE ETA  
 HELDUEN ARROPA  
 Jaime Urdua 15. ELIZONDO  
 Tfnoa: 948 580 312

**ORDOKI LIKOREAK**  
**ERRETEGIA**  
 Tel.: 948453410  
 Fax: 948453378  
**ARIZKUN** Parrilan egindako haragi eta arrainak

**ONASKA**  
**ERRETEGIA**  
 Euskal sukaldaritza  
 Arrain eta haragia brasan  
 Bagordiko bidean • **ELBETE**  
 © 948 45 20 88

**BAZTAN**

# Ana Mari Marinek Elizondoko alkatetza utziko duela jakinarazi zuen batzarrean

Kritika aunitz eta laguntza guti hartu dituela erran zuen

**ttipi-ttapa**

Ana Mari Marinek ez du alkate karguan segituko, irailaren 1ean Herriko Etxean egindako batzarrean jakinarazi zuenez. Eguberriak arte segituko du, baina ez da hurrengo hauteskundetan hautagai gisara aurkeztuko. Alkatesak ez zuen bere erabakiaren arrazoirik agertu, baina «*Elizondon egoera mingarria bizi dela*» adierazi zuen. Bere ustez, alkateak «*arazo eta kritika aunitz biltzen ditu, bizilagunen laguntza, aldiz, arras guti*». Ana Mariaren ustez, herriko jendeak herriko afe-rei buruzko interes guti azaltzen du eta hori ez zaio ulergarria iruditzen. Bizilagun bakoitzak urtean ordaindu beharreko 33 euroak ordaintzeko batzuk jartzen dituzten erreparoeekin ere harritia dago Ana Mari. «*Bertze herrietan 100 edo 150 ordaintzen dute aitzakirik gabe, herriaren mesederako delako*».



ARGAZKIA: RAKEL

Arizkongo posada moldatzen hainbat lagun aritu da auzolanean.

**FLASH**

**Jorge Oteizaren «Amatasuna»**

Jorge Oteiza artista famatuaren «Amatasuna» eskultura jarri dute Elizondon. Irailaren 8an, Txokotoko besten barranean, egin zen inaugurazio ofiziala. Aitzinetik, oriotarraren bertzeko eskultura bat bazen Elizondon, elizatarian paratutako «Santiagori Otoiña», hain zuzen.

**Ikasturte hasiera**

Baztango ikastetxeetan ere hasia da ikasturte berria. Arizkongo eskolan astebete gibelago hasi ziren, irailaren 11n, moldatze lanak egiten aritu baitira. 89.791 euroko aurrekontuarekin (14,9 milioi pezeta) itxura aldaketa ederra eta behar beharrezkoa eman diote. Diru kopuru horretatik 58.360 euro Hezkuntza Departamenduak jarri ditu.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

ikasi, edonola egin dezakezu

auskara ikasteko baina,  
hobe duzu aek-ra etorri

bakaria 0 810 015 626 • irribia 944 159 512  
arizkonda 943 327 178 • gasteiz 945 281 200  
irufesa 949 220 213 - www.aeknet.net

**aek**  
izena eman

Okindegia Jatetxea

**Uxoa**

OKINDEGIAN  
- Ogi artisaia, eguneko eta txapata  
JATETXEAN  
- Menua eta karta (asteburuetan)  
- Especialitate parrilari erretako jakietan

Enlargatuz gero, bidetia ogi-lasana erretu, (jira-groa)

Ordaki industrialdea - Tfnoa: 948 45 34 02 - 31113 ARIZKUN

## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Berrogeita bi haurrek hasi dute ikasturtea bi eskoletan

Gan den urtean baino bi gehiago, lauk alde egin eta sei hasi direlako

### Margari eta Koro

Irailaren 5ean 42 haurrek hasi zuten berri ikasturte berria Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan. Alde huntatik baikor agertu behar dugu, ikasle kopurua pittat haunditu delako (4 ikasle akitu zuten eta 6 berri hasi dira).

Bainan urteroko arazoak hor segitzen du: irakasleen aldaketa haundia dela. Orain arte, denbora osoz lan egiten duten 5 irakasleen plazak azkeneko momentu arte airean egoten ziren, aurten bederik lasaitasun pittatizan da, plaza horietatik bat finko batek hartu delako eta ekainerako nor zen baginakielako (Lesakarra hain xuxen). Hala ere, erran behar da bertze bi plaza ere bi irakasle finkoek hartuta daukatela (ze "txolloa" izanen zen 3 irakasle finko izatea...) bainan pertsona hauek ez dute eskola honetara etorri nahi eta beren ordezu urtero irakasle berriak gorri behar dituzte.

### Turismoaren kalitate Plangintza

Nafarroako bertze 53



**Urte batzuk ezkontzarik ikusi gabe egon gara herrian, bainan azkeneko huntan 3-4 bat izan ditugu. Maitexa eta Juan Felix izan ditugu azkenak. Zorionak eta animo.**

Udalekin batera Urdazubi eta Zugarramurdikoak ere "Turismoko kalitate Plangintza" batean sartu dira. Plangintza hau Nafarroako Gobernu eta Cedema-Garalurren artean jarriko dute martxan. Berez turismoa alde huntarat erakartzeko da, bainan aitzaki horrekin herriak eta herrietako zerbitzuak

hobetuko dira. Kontutan hartuko diren zenbait gauzen barne hauek izanen dira: Karriketako garbitasuna; baita ere gauerako argitasuna; basurako kontenedoreak ingurua ez desitxuratzeko moduan eman; elizak eta ikusteko interesa daukaten bertze tokien ordutegi egokiak jarri...

## SARA



# Angel Perez garaile aurten ere Sara Korrikak antolatu lasterketan

Jende ainitz bildu da herriko besten kari

### Xan HARRIAGUE

Aurten ere bestak gan zaizkigu. Bi egunetan denbora txarra egin bazuen ere, ordutik hobetu zen eta jende ainitz hurbildu zen Sarako plazara, bai herritarrak baita auzoko herrietakoak ere.

Larunbatean, Sara Korrikak antolatzen duen lasterketan, iaz bezala, Angel Perez iruñearrak irabazi zuen, 38 minutuz. Ramuntxo Lamothe saratarra bigarren utziz. Ondotik sartu Iñaki Lopetegi eta Jaime Etxegarai berratarra.

### Erretiratuak Landetan barna

Herriko Etxeak proposatzen duen urteko

ateraldia erretiratuentzat aurten irailaren 18an iragan da. Landesetako Savres herrian izan ziren. Goizean tren tiki bat hartu zuten, lehengo herri batetara arribatzeko, horrek erakusten zuelarik Landesetako tradizioa eta lehengo bizitzeko modua.



**Dantzarien eta Perurena aita-semeen saioak, biak ikusgarriak.**



## SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583  
ARIZKUN



HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

## AZKAIN

# Ikastolak bere 30 urteak ospatuko ditu

Igande honetan bazkaria eta hainbat ekitaldi izanen dira

## Ihintza, Angela eta Eneko

Hogoita hamargarren sartzea egin da aurten Azkaingo ikastolan. Urtebetetze berezia igande huntan ospatuko da Kiroletan 11:00etatik goiti. Antolatzaileek lehengo ikasle eta buraso gehienak bildu nahi dituzte egun hortan bazkari haundi baten inguruan. Animazio ainitz izanen da ere egun osoan:

11:00etan, pilota partida ikasle ohiekin; Ongi etorria; Atzoko eta Gaurko arduradunen hitza; Aurrekua ikasle ohienganik; Txalaparta.

12:00etan Zintzur bustitzea; Mutxikoak.

13:30etan: Bazkaria 18 eurotan (15 euro ikasle eta langabeentzat, 6 euro haurrentzat). Bertsolariak; Kantariak; Musikariak;

17:00etan: Dantza Piko, Patxieta Batbiru taldea.

Haur jokoak ere izanen dira. Bazkaltzeko txartelak Aldean edo Plazan ostatueta erositzeke.

## Ambrouille antzerkia

Irailaren 20an, ortziralarekin, emanen da Ambrouille antzerkia Ur Hertsiko erromano zubiaren ondoan. Joan den urtean egun berean emanaldia ez zen egiten ahal izan denboraxarragatik. Aurten sekulan gauza bera gertatzen balitz Kiroletako ezker paretan emanen luke «Le Petit Théâtre de Pain» taldeak.

## Eskoletako haurren %60ak euskaraz ikasten du

348 haur sartu dira aurten herriko 3 eskoletan (Ikastolan 24, eskola pribatuan 146 eta eskola publikoan 178). Ikasle kopuru orokorra haunditu bada ere joan den urtetik, elebidun sailko kopuruak ere emendatu dira. Ehuneko 60ak Euskaraz ikasten du. Eskola pribatuan elebitasunak haurren %65a hunkitzen du eta publikoan %49a. Ikastolan ikasle guzietan den-



ARGAZKIA: AMAIA LADUCHEK UTZIA

Argazki hau bigarren edo hirugarren ikasturtean hartua izan zen. Yvette Sempé erakaslea, Nathalie Jauregui, Bénédicte Galardi, Nathalie Nesprias, Stéphanie Paronnaud, Ramuntxo Untzai, Maider Bergues, Txomin Iratzoqui, Ana Solorzano, Amaia Laduche, Frédéric Artola. Bertze bi haurren izenak aldiz falta zaizkigu.

bora osoa Euskaraz iragaiten dute.

## Kirolan ere sartzea

Kirola elkarteek ere beren sartzea antolatzen dute haurrentzat.

Errubi eskola larunbatetan eginen da arratsaldeko 2ak laurden gutitik goiti (6-14 urtekoentzat). Helduen taldean matxa ofizialak irailaren 30an hasiko dira. Lehena St Jean de Marsac herrian eginen da. Azkainen eginen den lehena Urriaren 6an iraganen da (Amouren kontra). Ondokoa 13an eginen da Saran.

Saski baloiako egu-

nak ere finkatuak dira: ttikientzat asteazken arratsaldetan; 92-93 urteetan sortu direnentzat ortzegun arratsaldetan 5ak eta erditan eta asteazkenetan neskenentzat. 88-89-90-eta 91 urteetan sortu direnentzat astearte eta ortziraletan 6ak laurden guttitan.

Atletismoarentzat informazio guziak biltzen ahal dira Pierre Urangarengana deituz: 05 59 54 41 30.

## Agur Paquita eta Ramuntxo

Kiroleta jantegi-edantegia utzi dute Paquita eta Ramuntxo ostalereek. Irailaren 14an egin

da ofizialki ostatuaren hestea. «Dominique» jantegia utziz geroz, errubi zelaiaren ondoan hasi ziren kudeatzaile bezala herriko lokalak. 3 urte gelditu ziren xuxen. Oraikoa ez du bertze ostaler batek segida hartuko, tokiaren etorkizuna ez da oraindik erabakia.

## Azkaingo pilota txapelketa

Bi pilotari gazte izan ziren aurtengo txapel-dunak Azkaingo torneoan. Pantxo Valencia Senperrak eta Bruno Ibarburu Azkaindarrak irabazi zuten finalean Aboztuaren 26an.

**ZOANSA**

SEAT AUDI VW SALMENTA  
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA  
(Sarrera Beratik)

**RESTAURANT MIGUEL**

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA  
Ibardingo Lepoa  
© 948 631209

**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

**BURKAITZEA**  
ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
© 948 599280 • URDAZUBI



## EZKONTZAK

**Unai Cuesta Muguruza** eta **Cristina Martinez Malo**, Donostiakoak Artikutzan, abuztuaren 31n.

**Juan Jose Elizasu Bikuña** eta **Mirari Mariarikurrena Elizalde**, Donostia eta Iturangoa, irailaren 7an.

**Juan Maria Altzuri Errandonea** eta **Maria Estrella Calvo Caballero**, Bera eta Lesakakoa, irailaren 6an.

**Juan Felix Arburua Barberena** eta **Maitexa Benak Barberena**, Urdazubi eta Zugarramurdikoa, irailaren 7an.

**Juan Maria Ameztoi Arrijuria** eta **Maria Ana Olondriz Irisarri**, Elbete eta Elizondokoa, abuztuaren 31n.



## SORTZEAK

**Idoia Moitie**, Miarrizekoa, abuztuaren 14an.

**Ane Apezetxea Etxeberria**, Goizuetakoa, abuztuaren 20an.

**Izarne Etxaide Migeltorena**, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 19an.

**Xabier Iturburua Barberena**, Erratzukoa, abuztuaren 26an.

**Asier Irigoien Elizalde**, Elizondokoa, abuztuaren 31n.



## HERIOTZAK

**Jesusa Tapia Tapia**, Lesakakoa, abuztuaren 27an, 89 urte.

**Francisco Abruza Abruza**, Leitzan, irailaren 5ean, 59 urte.

**Maria Arotzena Zubiri**, Goizuetakoa, abuztuaren 26an, 82 urte.

**Modesta Mariñelarena Legazkue**, Donamariakoa, abuztuaren 24an, 80 urte.

**Jose Maria Mazizior Larralde**, Arantzakoa, abuztuaren 25ean, 85 urte.

**Rufino Etxeberria Almandoz**, Arantzakoa, irailaren 6an, 80 urte.

**Francisco Javier Sagardia Karrikaburu**, Iturangoa, irailaren 4an, 92 urte.

**Juani Urbieta Urtizberrea**, Lesakan, irailaren 8an, 81 urte.

**Mercedes Dorronsoro Mendizabal**, Arraiozen, irailaren 4an, 95 urte.



### TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan  
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704



### MARTIKO

*Abatekietan  
adituak eta arituak*

☎ 948 625016 • Fax 948 625036

Alkaiaga Industrialdea • BERA

*Eskisaroi  
jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
ELIZONDO

gaztelu  
**iturgintza**  
kalefakzioa  
saneamendua  
gasa  
☎ 948 510086 / 510156  
fax: 948 610856  
LEITZA

## PILOTA

# Munduko txapelketatik urrezko hiru domina ekarri dituzte eskualdera

Bengoetxea eta Agestak eskuz eta Zozaiak pala motzean

A.A.

Iruñean jokatu den Munduko txapelketatik urrezko hiru domina eta brontzeko bat ekarri dute eskualdeko ordezkariak. Frontoian, eskuz banaka, Espainiako ordezkari izan ziren Oinatz Bengoetxea leizarrak eta Ander Agesta aranztarra. Lehen fasean Bengoetxeak 5 tantutan utzi zuen Lambert (Frantzia) eta tantu bakarrean Medina mexikarra. Agestak ere izan zuen jokatzeak aukera. EEBBetako ordezkaria ez zen partidara agertu, ordea, eta Venezuelako Lacasa I. ari tantu bakarrean utzi zion. Arerio bera izan zuen Bengoetxeak finalerdian eta hutsean utzi zuen. Leizarrak, Mexikoko «Manos Locas» Marinen kontra jo-



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

**Xabier Zozaiak lesakarrak –podiumean, ezkerretik bigarrena– urrezko domina eskuratzen lagundu zuen pala motzean.**

katu zuen finala eta 22-4 irabazi zion. Beraz, erraz irabazi zuten eskuz banakako urrezko domina.

Pala motzean Gaubeka eta Erburu izan ziren pilotari titularrak, baina Xabi Zozaiak lesaka-

rrak ere parte hartu zuen Espainiako selekzioaren garaipenean. Lehen fasean, Velillarekin bikote eginez, 40 eta 7 irabazi zion Argentinako ordezkariari. Bertze partidara guziak bikote titularrak jokatu zituen.

Trinketean, berriz, uste baino emaitza kaxkarragoa eskuratu du Marc Berasategi azkaindarrak. Eskuz binaka aritu zen Frantziako selekzioarekin eta brontzeko domina bertzerik ez zuen lortu.

## FLASH

## Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketa

Mandaden garraldarrak irabazi zuen abuztuaren 31n Bargotan jokatutako Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa. Bi kanaerdiko eta bi 45 ontzakoak mozteko 11 minutu eta 21 segundu behar izan zituen. Albisu lakuntzarra izan zen bigarren (11'58") eta Jon Re-kondo gazte leizarrak hirugarren (12'00").

## Bingo-Londres txapelketa

Koteto Ezkurra doneztebarrak eta Zeberio IIak jokatuko dute erremonteko Bingo-Londres txapelketaren finala. Beraz, joan den aste hondarrean jokatzea da, baina bularreko giharretan urratzea izan da eta gibeleratu da partida. Hasieran, irailaren 21ean jokatzea espero da, baina bertze aste bat gibelteza ere posible da. Ez enpresak ezta Zeberio ere ez dute arazorik jarri partida gibeleratzeko.

## FUTBOLA

## Beti Gaztek eskuratu zuen Jon Irazokiren omenez zazpi garren urtez antolatutako txapelketa

Abuztuaren 31n jokatu zen Berako Matzada futbol zelaian, Jon Irazokiren omenezko zazpi garren txapelketa. Gure Txokoa eta Beti Gazteko talde nagusiak izan ziren aurrez aurre, eta aurten goan Bortzirietako derbia ikusteko aukera bakarra izan zen. Gure Txokoak bigarren denboraldia hasi du Gipuzkoako Preferente mailan eta Beti Gazte erregionalerako lehen mai-

lan ariko da, igoera lortzeko asmoarekin. Aurre-denboraldiko partida izateko, erritmo bizi eta tentsio handiko partida izan zen. Lesakarrak abudo aitzinduko ziren, Eneko Fernandezek penaltiz egindako golarekin. Beratarrek buelta eman zioten markagailuari, Carlos Ponbar eta Ina Lasagaren bitartez, baina Beti Gaztekin binako berdinketa egin zuen, Andoni Larralderen golarekin. Beraz,

berdinketarekin akautu zen arauzko denbora. Penaltietan fin ibili ziren bi taldeak eta lehendabiziko seiak sartu zituzten. Mikel Alzurik zutoinera bidali zuen Gure Txokoaren zazpi garrena eta Fernando Irazokik eman zion garaipena Beti Gazteri.

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Joxe Mari Irazokik, Jon zena aitak, eman zion txapelkunaren saria Beti Gazteko kapitainari.**







### HERRI KIROLA

# Mikel Mindegia Euskal Herriko bigarren mailako finalean ariko da

Igande honetan jokatuko da Uhartte-Iruñean

#### Aitor AROTZENA

Igande honetan, irailak 22, jokatuko da Uhartte Iruñean Euska Herriko bigarren mailako aizkolarari txapelketaren finala eta bertan izanen da Mikel Mindegia. Joan den urtean txapelketa ofizialak utzi zituen Ezkurak aizkolarari betteranoak. Aurtan, berriz ere txapelketei ekin die, baina Nafarroakoan lehen mailan lekua kontu dioten bitartean, Euskal Herrikoan bigarren mailan lehiatu behar izan da. Mindegia irailaren 8an Ziordian jokatuako kanporaketa irabazi egin zuen. Hiru kanaerdiko, 60 ontzako enbor bat eta oinbiko bat mozteko 13 minutu behar izan zituen. Bigarren izan zen Vicentek minutu erdi bat gehiago behar izan



ARTXIBOKOA  
Pronostikoa betetzen bada, Mindegia ez du arazorik izanen igandean Euskal Herriko bigarren mailako aizkolarari txapela janzteko.

zuen. Beitia izan zen hirugarren (13'53") eta gainerakoak dexente beranduago akitu zituzten lanak. Txapartegik (15'58"), Erdoziak

(16'16") eta Erasunek ere (16'43") eskuratu zuten finalerako txartela. Azken bi postuetan sailkatu ziren Aierbe II eta Kañamares, aldiz, hiru-

garren mailara jautsiko dira.

Igandeko finalari dagokionez, Mindegia izanen da faborito nagusia.

### PERTSONAIA

Miriam BLAS

**Munduko Mendi Bizikelta Kopa eta txapelketan aritu da txirrindulari beratarra**

Abuztuan Mundialeko bi probatan parte hartu du Miriam Blasek. Eskozian 6. postua lortu zuen eta Eslovenian 7. Munduko Kopan ere parte hartu zuen Espainiako selekzioarekin. 15 lehenbizikoen artean sartzeko esperantza zuen baina erorkak izan zituen, nekea somatzen zuen, analisien emaitzak bere onen ez zegoela adierazten zuten eta gainera, ibilbidea normala baino luzeagoa zen. Azkenean 23. postua lortu zuen. Halere, bi urtez konpetitu gabe egon ondotik, pozik dago lortutako emaitzekin.

### XAKEA

## Francisco Miguel Quintero aretxabaletarrak irabazi zuen Lesakako Herria IX. Nazioarteko Irekia

Irailaren 7an burutu zen Beti Gazte elkarteak Lesakako Udalaren laguntzaz bederatzigarren aldiz antolatutako Lesakako Herria Nazioarteko Xake Irekia. Bertan, Francisco Miguel Quintero, Aretxabaletako jokalaria suertatu zen garaile eta 300 euroko saria eraman zuen. Guzira 72 xake jokalarari aritu ziren txapelketan eta Quinteroren

garaipena ezustekoa izan zela erraten ahal da, Argentinako hiru Nazioarteko Maisuri gailendu baizitzaion. Horietako bat, Diego Del Rey izan zen bigarren (200 euroko saria) eta Luis Olaizola gipuzkoarra hirugarren (150 euroko saria). Lehendabiziko lesakarrari emandako saria Javier Oiarzabalek eskuratu zuen. Sailkapen orokorrean

43. postuan sailkatu zen lesakarra.

Nafarroa eta Euskadiko Federazioko jokalariekin batera, Aragoi, Argentina eta Alemaniakoak ere izan ziren Lesakako udal pilotalekuan.

ARTXIBOKOA

**2000. urteko txapeldun izan zen Diego Adla argentinarra laugarren izan da aurtengo txapelketan.**



# AGENDA

egunez  
egun

## KONTZERTUAK

### LESAKA

**Irailaren 20an** Sierra Leonako Seydu kantaria Zambra aretoan, gauerditik aitzin.

**Irailaren 21ean** La Calle Caliente soul taldea Zambra aretoan, gauerditik aitzin.

### BERA

**Irailaren 21ean** Ertz jaialdia Kultur Etxean. Eguerdiko 12:00etatik hasita 24 orduko kontzertua.

## MENDI IRTEERAK

### LEITZA

**Irailaren 22an** Adi mendira ateraldia antolatu du Mendibil mendi taldeak. Izen ematea ohiko lekuetan irailaren 19a baino lehen.

## ANTZERKIAK

### LESAKA

**Irailaren 21ean** Kasketa Kabaretaren «Neskapolitan» antzezlana 20:00etan Kasinon.

### AZKAIN

**Irailaren 20an**, ortziralarekin, Le Petit Théâtre de Pain taldearen Brouillarta antzezlana Ur Hertsiko erromano zubiaren ondoan (eguraldi txarra bada Kiroletako ezker paretan).

## DANTZAK

### BERA

**Irailaren 22an** VIII. Dantzari Tiki Eguna antolatu du Gure Txokoak. Xehetasunak 11. orrian.

## OSPAKIZUNAK

### ITUREN

**Irailaren 21ean** Joaldunen Eguna.

## BIDASOAREN EGUNA

**Irailaren 21ean** Baztan-Bidasoa osoan ospatuko da bigarren urtez Bidasoa errekaaren eguna.

## TELEBISTAKO TXOKOA



### ELTZE BEROA SAIOAN

# Errezeta goxo eta errexak Iñaki Pikabearen eskutik


Ttipi-ttapa telebistan, astearteko berrien ondotik sukaldaritzaren tartea izanen da. Uda osoan aba ur dariola izan dugu, Iñaki Pikabea Berako gazteak Eltze Beroa saioan prestatutako errezetekin: paella, legatza saltsan... sukaldeko kaxulen artean hasten direnendako prestatzeko jaki errexak, baina aldi berean, edozein konpromisorako baliagarriak diren errezetak. Sasoi berri honetan ere, berak esplikatu ditzigu jaki goxoak maneatzeko segitu beharreko pausu guziak. Sukaldari gaztea izanagatik, Iñaki Pikabeak ez du Argiñanoren inbidiarik. Irizarrekin bi ur-

tez ikasia, Arzak, Alejandro, Hildalgo eta Akelarre jatetxe famatuetan praktikak egin ditu. Argentinan, Estatu Batuetan eta Parisen ere izana da sukalde lanetan. Etxetik hurbilago, Zalain eta Zubiondo jatetxeetan aritutakoa, gaur egun Etxalarko Herriko Ostatuan ari da.

### BERRIKUNTZAK ORDUTEGIAN

Udako ildoari eutsiko dio ttipi-ttapa telebistak, baina zenbait aldaketekin. Hasteko eguneroko emisioa ordubete aitzindu eta 20:00etan hasiko da. 13:00etan aktualitateko albisteen aurrerape-na ere izanen da.

## DISKAK



### «Esperientzien etorbidetik»

### Selektah Kolektiboa

METAK, 2002

Azkenean plazaratu du Selektah Kolektiboa bere bigarren CDa, «Esperientzien etorbidetik» izenburua daraman hau xe. Munduaren norabidea azterten du oraingoan taldeak, Euskal Herrian gertatzen dena horregatik ahaztu gabe. Eta era guzietako injustizien salaketa gordina egiten du, Palestinako herriari jasanarazten zaiona kasu, Bush bezalakoak xaxatzen dituelarik, alditan izen bera daramaten hamazazpi kanta indartsu hauetan: «Intro zuentzako», «Orkestraren orena», CDarai izena eman dion «Esperientzien etorbidetik», «UPN West 2 (jpa vencederos, navarros!)», «Festa... zu ongi presta», «Impunitat», «Nere eskutik», «Conection», «Gora gaileta», «Hitzek min hartzen duten tokia», «Conciencia de un sentir», «Hip-hop bizitza», «Hiru kilo», «Irairna» eta «Outro».

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Abuztuaren 30etik irailaren 6ako prezioak)



**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 12,42 €

**Zerri gizona**  
(95-100): 1,00 € kilo.

**Zerramak:**  
0,42 € kilo, bizirik.



**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,22  
**1.koa** 3,10  
**2.koa** 2,98  
**Urruxak:** Pta/kg. Kanal  
**Extra** 3,28  
**1.koa** 3,16  
**2.koa** 3,05

**Oharra:** Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Mestizoak:** urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

**Nabarrak:** urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,79/2,95  
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,71/8,01  
8-10 kilokoak: 6,76/7,20

## JAKIN BEHARREKOAK



# Auto tailerrek bete beharreko garantia eta ardurak

Autoen moldaketak keza aunitzen iturri dira. Zerbitzua kontratatu baino lehen, tailerraren eskubide eta betebeharrak ezagutzea komenigarria da. Izan ere, 2000. urtean Kontsumo Institutu Nazionalari, auto tailerretan egindako konponketengatik esku hartzeko .206 eskari egin zitzaion. Eakunde honen ustez, kontsumitzaileak ez du egungo araudia ezagutzen, eta horrek defentsarik gabe uzten dio gehiegikerien aitzinean. Tailerrak jende aitzinean paratu behar ditu prezioak, bai

lan orduarena, baita zerbitzu zehatzei dagokiona, lan ordu-tegitik kanpo egindako orduak, edo autoa tailerrean uzteagatik kobratzen dena, adibidez. Prezioetan, bereiz agertu beharko da zergei dagokiona. Tailerrean, ikusteko moduko lekuan egon beharko du erabiltzaileak aurrekontu idatzia eskatzeko duen eskubidea agertzen duen kartela, baita erreklamazio orria ere. Modu berean, moldaketen garantia agertu beharko da, kotxeen kasuan legez, guttienez hiru hilabetekoa edo 2.000 kilo-

metrokoa dena. Marka jakinetako tailer ofizialek, gainera, jendaurrean izan behar dute moldaketa lanetan erabiltzen dituzten piezen katalogo eta tarifa eguneratuak, baita lan denboren taulak. Tailer batera joan eta bezeroa informatzeko araudi hau betetzen ez dutela ikusten baduzu, eska ezazu. Zure eskubidea da eta izan daitezkeen erreklamazioetarako garantia da.

**CONSUMER** Aldizkaritik bildua

## LIBURUAK



*Inesaren balada*

**Hasier ETXEBERRIA**

ELKAR

Hasier Etxeberria idatzitako «Inesaren balada» nobela finalista gertatu da 2002ko Apirila sarian, gazteentzako nerratiba bultzatu asmoz Corte Inglesek eta Argitaletxe Elkarteak (argitaletxe valentziarrak, galiziarrek, katalanak, asturiarrak, aragoiarrak eta euskaldunak osatzen duten elkarlanerako plataformak) urtero antolatzen duen literatur lehiaketan. Abenturazko nobela dugu «Inesaren balada», XVIII. mendeko kortsario la-

purtarren mundura garamatzen idazlana. Bere protagonista nagusia neska bat da, Inesa Indazubikoa. Zazpi ahizpen artean zazpigarrena jaitzea egokitu zitzaion neskato honi, eta mendikoa zenez, jakina zen bere patua: sorgina izatea zegokion. Baina bera hegazti urruti-gose bat zen, eta ez zegoen horretarako prest. Bere gurasoen ostatuan lanean ari zela Pellot kapitain kortsarioa ezagutu zuenean, garbi izan zuen zer egin.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

#### URROTZ

Irailaren 27tik urriaren 1era  
Sanmiguel bestak.  
Xehetasunak 16. orrian.

#### IGANTZI

Irailaren 27tik 30era  
Sanmiguel bestak.  
Xehetasunak 17-20. orrietan.

#### DONEZTEBE

Irailaren 20 eta 21ean besta  
ttikiak. Xehetasunak 15.  
orrian.

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

Irailaren 3tik 25era Pere  
Alavedraren margo  
erakusketa Arizkunenean,  
asteleheneetik larunbatera  
19:00etatik 21:00etara.

#### LEITZA

Irailaren 17tik 29ra Pilar  
Aramendiren margoak  
ikusgai Maxurrenean.

#### BERA

Irailaren 16tik 28raa  
Amalurraren defentsan  
erakusketa Kultur Etxean,  
18:00etatik 20:00etara.

### KONTZERTUAK

#### LESAKA

Irailaren 22an Lesakako  
Musika Banda 13:00etan  
plazan.  
Irailaren 25ean Lesakako  
musika eskolako saxofoi eta  
klarineten kontzertua  
19:00etan Alhondigan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### 112 TFNORA. DEITU

#### Irailaren 16tik 22ra

Etxalar, Narbarte, Leitza (A.  
Gimeno), Goizueta, Elizondo  
(Lezaun), Arizkun, Urdazubi.

#### Irailaren 23tik 29ra

Arantza, Doneztebe (A.  
Mendia), Goizueta, Elizondo  
(R.Geruzaga).

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**ARANTZA.** Pisua salgai. 3 logela eta bajera. 7.000.000 Pta. Deitu eguerdi edo arratsetan ☎ 945 139 072

**BERA.** Pisua salgai. 5 gela, kalefakzioa, 2terraza, garajearekin edo gabe. Bista onak San Esteban, 21 2.B. ☎ 948 631 472

### ADOS

- **ARANTZA.** Pisu bat salgai. ☎ 639 494 522
- **BAZTAN BIDASOAldean** terrenoak erosiko nituzke. ☎ 607 978 656

### ADOS

- Eskatera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badugu zerbit. Eskatu informazioa ☎ 948 451 841 / 639 494 522

### Baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke.

☎ 639 494 522

**BERA.** Pisua salgai, mobleztatua, garajea, trasteroa, kalefakzioa eta lorategiarekin. ☎ 948 631 074 gaez

**ELIZONDO.** Pisua salgai, kalefakzioarekin. Mobleztatua. Jaime Urrutia karrikan. ☎ 639 452525.

**GOIZUETA.** Pisua salgai, 3 gela, trasteroa, kalefakzio, oso argitsua eta berritua ☎ 948 514 036

**BERA.** Pisua salgai. Ibaialde 6. 3esk.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan emateko

**LESAKA.** Pisua errentan emanen genuke Bittiria karrikan. ☎ 948 637 050 (goi-

### BULDAIN LEITZAN

11 pisu salgai. Prezio desberdinetakoak

☎ 649 476 615  
☎ 948 510 534 bulegoa

zez).

**DONEZTEBE.** Jubilatuen ostatura errentan eman nahi da. Santa Luzia karrikan. ☎ 948 450 155 (Julian).

### ETXEBIZITZAK 106 Bertzelakoak

**IRUÑEA.** Arrosadia auzoan mutil bat behar da pisua bertetzeko. ☎ 687 736 981

**DONOSTIA.** Emakume batek, lagun egitearen truke, gela bat utziko lioke ikasle bati Gros auzoan. ☎ 943275 843

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan emateko

**BERA.** Lokala errentan eman nahi da. Itzea 6 behe. ☎ 948 630 342 - 637 241425

### LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

**GAZTELU.** 2.900 m<sup>2</sup>ko Lur zati eraikigarria erosiko nuke. ☎ 948 637 931

### LURRAK/ORUBEAK

### 113 Erosi

**LESAKA.** Lur zati eraikigarria erosiko nuke. ☎ 948 637 931

### LANA

#### 301 Eskaria

**Emakume batek lan eginen luke,** adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketara... ☎ 626 852937.

**Emakume batek adineko pertsonak** zaindu eta beste lan motak eginen lituzke. Bortzirietan. ☎ 948 387 018

**Emakume batek lan eginen luke,** adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketara... Gaetan ere. ☎ 630 082 579 - 650 065 062

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**Etxalarren emakume bat behar da** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 948 635 247 goizez.

**Iruñeko pasteleria batean obradorean** lan egiteko 25 etik gorako neska bat behar da. ☎ 948 220 618 komertzio ordutan.

**Neska euskalduna behar da Iruñean** 3 urteko umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordelegia 11 etatik 3etara, irailetik aurrera. ☎ 948 510 442

**IBARDINen, tabernan lan**

### MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

#### Bigarren eskuko kotxeak:

Renault 19 D, Renault 19, Corsa D, Clio D, Astra D, Mitsubishi montero 3 ate, I Tata TD 20.000km.

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**egiteko** pertsona bat behar da. ☎ 948630175. Arratseko 9etatik aitzin deitu bertze Tfno. honetara: 948630957. M<sup>8</sup> Cruz.

**Ikasle euskaldun bat behar da** Iruñeko San Juan auzoan, 3 urteko haurra zainitzeko. Lan ordutegia 12'15etatik 15'00etara ☎ 948 177 629

**Pertsona euskalduna kontratatu behar dugu** etxeko lanak egin eta 4 urteko haurra ikastolara eramateko. Txantrea-Iruña. Ordelegia 7:30etatik 12:30etara. ☎ 948 123024. Arratsaldez (Rosa) **Iturgin ezagutza duen mutila** behar da. ☎ 629 449 602 (Javier Manterola).

**Beran elektrizitatean** esperientzia duen langilea behar da. ☎ 639 125 046 - 639 608 034

**Emakume bat** behar da. Etxeko lanak eta emakume bat zaintzeko. ☎ 948 630 107

**IRUNEN.** Neska bat behar da. Etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. ☎ 948 631 589

**Neska bat behar da** etxeko



**JOISA**  
AROSZTEGIA  
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK · MAKINA ERREMINTA

ADU 16 Industrialdea  
LESAKA 31770  
Nafarroa

Tfnoa eta Faxa: 948 638 150  
Mugikorra: 646 774 117

**Cheli**  
Estetizista

- Autopiloto irratimutak
- Orduzuzen irratimutak
- Murgintzen irratimutak
- Orduzuzen irratimutak
- Murgintzen irratimutak

ZARAGOZA, 11  
20011 NAFARROA  
Teléfono 948 41 41 41

**ARANTZA ZYRGINDEGIA**  
Jose Miguel Errandonea

**Klase guztietako zurgin lanak**

Osiña auzoa © 948-634068 • ARANTZA

**GANIX Tailerrak**

Iturilandeta, 9 • © 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA**

**FIAT Zerbitzua**

**BOAN TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA**

☎ 948 63 06 23 • BERA

**Xm** Ikasle berritasun irratimutak gabe

**Xabier Martinikorena**

Plazakako sabel eta baliak  
Irakurketa berritasun irratimutak  
Eta irratimutak irratimutak  
Auzoak  
Sabel irratimutak

☎ 948 630 637 • 948 630 637 • LEITZA

lanak eta 2 haur zaintzeko. Orduetgia goizez. ☎ 948 630 728.

**Emakume euskalduna behar da** etxeko lanak eta haurrak zaintzeko Igantziko Berrizaun auzoan. ☎ 948 627 601.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Peugeot 106 GTI** salgai. Egoera onean. ☎ 606 381 892

**Yamaha 250 cc motoa** salgai. Extrak baditu. ☎ 660 042 397

**Seat Ibiza Cupra salgai. 1.8T 20v 156cv.** Egoera eta prezio onean. garantiarekin. ☎ 637 110 472. (17:00etatik aurrera)

**Montesa Cota 335 salgai.** Hagitz gutti erabilia. 1250€. ☎ 637 844 417 (Enrique)

**Sei eserleku dituen furgoneta** Peugeot J5 salgai. Mobleztatua eta isolatua. ☎ 617 350 176

**Suzuki GSXR 750 salgai.** 12.000 km, ia berria ikusteko modukoa. ☎ 948 451 946 - 658 748 731

**Yamaha 125 cc / 97 motoa** salgai. Egoera onean. ☎ 699 461 394

**Hyundai Coupe gorria 2.0-16v (140cv) deportiboa** salgai. Extrak; alarma, kristal tindatuak, tubo eskapea, aluminiozko alfonbrak eta pailanka, eserlekuak eta bolantea deportiboak ☎ 699 555 549

**Volkswagen Golf GTI 16v** 1994koa salgai. Egoera onean. ☎ 657 704 596

### ANIMALIAK 601 Emateko

**LEITZA. Lau zakurkume eder opari emateko.** ☎ 948 510 268

### ANIMALIAK 602 Saldu/Erosi

**Cocker zakurkumeak salgai.** Gorriak eta beltzak. Spañiel arra ere bai. ☎ 677 594 892 - 948 637 519.

**Lau hilabeteko setter ingeles** arrazako zakurkumeak salgai, txertatuak. Atta eta ama oilagor ehiztari onak. ☎

943 490321, 943 490333  
**Ardien deretxoak** salgai. ☎ 699 175 565

**8 hilabeteko ehizi zakurra** salgai. Lumakoa. ☎ 948 635 079

**Setter ingeles** arrazako zakurkumeak salgai. Ehiztari onen umeak. Merke. ☎ 948 635 079

**Setter arrazako zakurra** salgai. Ehiztari onak. ☎ 948 635 079

### DENETARIK 702 Salerosketak

**Auto edo mendiko ibilgailu** batentzat erremolkea salgai. 1'70 luze eta 1'30 zabal. ☎ 639 439 509 / 948 451 622.

**LESKA. Ziobi mendian 8.032,5 hektareako pinu plantazioa** salgai. Papelerentzat duela 18 urte landatua. Plantazioaren %57 Papelerentzako eta %43 jabearendako. **Zarrola mendian 3.915, 3 Hektareako mendia** salgai. Zati bat duela 40 urte sartutako pinadia, gainerakoa landatu gabea. ☎ 948 637007, 948 221325 edo 677 595252

### DENETARIK 703 Bertzelakoak

**Klase partikularrak ematen nituzke Lesakan.** Fisika, kimika, matematika... maila guztiak selektibitatea ar-

te. ☎ 948 627 637

**Bigarren eskuko akordeoia** erosiko nuke. 3 ahots eta 7 erregistrarekin. ☎ 943 622 167 Nekane (gauzez)

## NORBAIT ZORIONTZEKO,

**BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,25 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA (Nafarroa)

**Entzun ibaiaren hizkuntza goxoa**

Nafarroako euskaltegi publikoa Uhartan dago

**Hizkuntza berria**  
Zubiarte, 13 • 31600 UHARTE  
☎ 948 38 10 91 • 680 38 10 84  
euzubiarte@pnie.cfnavarra.es

- 2, 3 eta 4 orduko ikastaroak
- Alfabetatzen, euskara HEGAN
- Maila eta ordutegi guztiak
- Matrikula: irailaren 16tik 27ra

**ZUBIARTE**  
Euskaltegi Publikoa

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



**ANDER GOIZUETA BARRIOLA** lehenbiziko urtea beteko du irailaren 23an. Muxu handi bat Lesakako familiaren partetik.



**BEÑAT ETXEKOLONE** 6 urte beteko ditu instanteko. Zorionak eta muxu haundi bat ata, ama eta Mikelen partetik. Ongi pasa!



**ANTTON LAZKANOTEGI** beratarak irailaren 25ean urteak beteko ditu. Lau muxu eta zorionak Andoni, Aitor, Irati eta Ireneren partetik.



**GARDIÑE AGERRE ETXALAR** almandoztarak 5 urte bete ditu irailaren 8an. Zorionak familia guziaren partetik.



**BEÑAT MAYORDOMO ALMANDOZ** beratarak 2 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak ata, ama eta Xabieren partetik. Muxu bat.




**JOSU DAGERRE MARTIRENA** elizondarrak urriaren 3an urtea beteko du. Zorionak aita, ama eta etxekoan partetik.



**ANDER GOIZUETA BARRIOLA** lesakarrak urtea beteko du irailaren 23an. Zorionak aita eta amaxoren partetik.



**ANDER GOIZUETA BARRIOLA** lesakarrak urtea beteko du irailaren 23an. Zorionak Leitzako familiaren partetik.



**MADDALEN LOPEZ TAPIA** lesakarrak 5 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak familiaren partetik, berexiki Mattinen partetik.



**JON ETXEPETELEKU BURGETE** lesakarrak irailaren 17an urtea beteko du. Zorionak ata, ama, Ane eta familiaren partetik.



**IRAKI UGARTE MENDIA** irazoki urteak bete zituen abuztuaren 28an. Zapela zuzen jar ezak! Aupa Xebastian deuna. Donostiako lagunak.



**ALAITZ ARANIBAR** beratarak 3 urte beteko ditu irailaren 25ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



**EDURNE TAPIA** ALTZUGARAI lesakarrak urteak bete ditu irailaren 6an. Zorionak Sukaldari. Afaria noizko? La family.



**NAHIA IRIGOIEN PEREZ** ebalartarak 10 urte beteko ditu irailaren 28an. Muxu bat familiaren partetik.

**BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA**

Sukaldean erabilitako olioan  
bilketa egunak

**2002ko urriaren 3an**

Bera .....9etatik 12etara  
Etxalar .....13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar

Bidali  
**ttipi-ttapa**  
herriatik kanpo bizi diren  
lagun edo familiakoei

☎ (+34) 948 631188

**ITURENGO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE ITUREN

**HERRIKO OSTATUA ETA ETXEBIZITZAREN ERRENTA**

Iturengo Udalak, 2002ko uztailaren 11n egin osoko bilkuran, enkante publikorako deia egitea erabaki zuen, %10eko beherapena-ekin, Iturengo Herriko Ostatuko taberna eta jatetxea zerbitzua errentan emateko eta horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitza esleitzeko, baldintza hauei jarraikiz:

- **Errentamenduaren iraupena:** 10 urte, bertze 5 urtetan luzatzen ahal direnak.
- **Errenta:** 2 osagai hauek ditu:
  - 15.100 euroko sari finkoa edo errenta aintzinatua, gehi BEZaren % 16.
  - Urteko errenta, 432 eurokoa (beherapena kalkulatu dago), gehi BEZaren % 16. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- **Eskaintzak aurkezteko epea:** eskaintzak Iturengo Udala idazkaritzan aurkeztuko dira, 2002ko irailaren 25eko 14:00ak arte (NAO 108, 2002-09-02koa), horretarako onetsitako baldintza administratiboaren pleguan adierazten den gisara.
- **Behin-behineko fidantza:** 1.500 euro.
- **Proposamenak irekitzea:** Udalaren osoko bilkuran irekiko dira, eskaintzak aurkezteko epea akitutakoan.
- Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago udal idazkaritzan.

Ituren, 2002ko irailaren 5a  
ALKATEA, José María Gorosterrazu Elizalde

**BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA**

**4 FAMILIA LANGILE, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ, ALDI BATERAKO ETA LANALDI EZ OSOAN HARTZEKO DEIALDIA**

- **Deialdiaren argitalpena:** 2002ko irailaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 108 zenbakian.
- **Baldintzak:** Deialdian ezarritakoak.
- **Eskaeren aurkezpena:** Mankomunitateko Idazkaritzan, Etxalarko Herriko Etxean.
- **Aurkezteko epea:** NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik 30 egun naturaleko epean.

Deialdia interesatuen esku egon da Mankomunitateko Idazkaritzan.

Etxalar, 2002.09.06

Presidentea

**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**U.U.7.2ko URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONARTZEA: PROMOCIONES IZOTZALDEA S.L.**

2002ko abuztuaren 29an Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. PROMOCIONES IZOTZALDEA S.L.k aurkeztutako U.U.7.2ko Urbanizazio Proiektua, hasiera batez onartzea.
2. Aipatu Urbanizazio Proiektua, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietatiko batean, gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki Taulan aldeaz aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurren jartzea.
3. Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2002.08.30

ALKATEA  
J.J. Goia Etxeberria

## TTIPI TXARTELArekin

ttipi-ttapa aldizkaria  
debalde hartuko duzu  
eta txartela duten guztien artean  
oparien zozketak  
eginen dira hilabetero



### HILABETE HONETAKO SARIA

**MIKEL URDANGARINEk**  
urriaren 5ean, 22:00etan,  
Berako Kultur Etxean  
eskainiko duen  
kontzerturako  
4 sarrera zozketan.  
Deitu 948 631188ra  
irailaren 26a baino lehen.

Bortzirietako IKA  
Euskaltegiaren eskutik



Antolatzailea:  
Bortzirietako Euskaltegia (IKA)



Laguntzailea:  
Berako Udala




Jakinazu  
TTIPI TXARTELA  
ttipi-ttapa fundazioa  
finantziatzeko  
erreminta ere badela.  
Nafarroan  
euskararendako  
dirulaguntzak  
gero eta murriztagoak  
direnean,  
jendearen aportazioa  
inoiz baino  
garrantzitsuagoa baita



Hizkuntz Eskola

# Elduaïen



*Zurekin gara berriro*  
*Matrikula epea: Iraila*  
*Mugi zaitez ordua hartzeko:*  
*Lehenengoek lehentasuna dute*



1996.  
urteko  
zerbitzu  
onenaren  
aitzindari

- Euskara
- Alemanara
- Ingelesa
- Gaztelera
- Frantsesa
- Italiera

[elduaïen@elduaïen.com](mailto:elduaïen@elduaïen.com)

☎ 948 510 635 • 615 894802

Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

☎ 943 670 052

Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA

☎ 943 674 733

Kondeko aldira - 30. • TOLOSA

☎ 943 310 753

DONOSTIA

Boi a  
conprar una  
varra de pan



**Gaztelaniaz arraroa egin al zaizu?  
Bai, ezta?**

**Eta euskaraz ez al da maiz gertatzen?**

**zer ikasia baduzu,  
non ikasia ere bai**

Bortzirietako IKA - 948 637796 / Malerrekako IKA - 948 451555  
Leizaldeko IKA - 948 610776 / Baztango AEK - 948 452471

**Antolatzaileak:**

► Udeletako Euskara Zerbitzuak:  
Baztan, Bortziriak,  
Leizaldea, Malerreka



**Laguntzailea:**



Nafarroako Gobernua  
HEKUNTZA eta KULTURA Departamentua  
Leizaldea eta Baztaneko Udalak  
Udalbiltza eta Hezkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusia